

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-09-07  
EGUBAKOITZA  
520. ZENBAKIA  
12. URTEA  
DOANEKOA  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

"Orain arte  
irakurketa bat  
ezagutu dugu,  
ofiziala"

Joseba Asiron  
Historialaria | 8



Preso eta  
erbesteratuen  
babes taldea

Harrera elkarte  
aurkeztu dute  
Arrasaten | 5

Merkealdien azoka bereziak  
Aretxabaletan eta Oñatin | 17 eta 38



Arrasate Hiria jokatu dute  
gure taldeek, Mojategin | 21



Otxandiarrekin bazkaria, jaietako  
nobedadeetako bat Gatzagan | 33



## JARRAITZEKO TENTATUTA

Londresko Joko Olinpiarretan irabazitako  
brontzezko dominak zalantza eragin dio  
Maidar Unda borrokalari oletarrari:  
"Bosgarren egin izan banu lasai-lasai  
hartuko nuke erretiroa"; orain, baina  
ez daki zer egingo duen. | 2

Maidar Unda, Oletako baserriaren ate aurrean, Joko Olinpiarretatik ekarritako brontzezko domina erakusten. | XABIER URTZELAI

### SINADURAK

Euskaraz bizi, bizi-bizi | 6  
OSKAR ELIZBURU

6 | Ez dugunak eragiten du min  
UBANE MADERA

Udagoien betea | 40  
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |  
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 20 |  
KULTURA 23 | ZURE IRAGARKIAK 35 |  
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 |  
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

2012  
2013

OK

Lanerako gertu!

» Oñati gestio  
heziketa

Matrikula zaituz,  
azken tokiak!!!

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

Eskeintza akademikoa

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

[www.mondragon.edu/ogh](http://www.mondragon.edu/ogh)  
[info.enpresagintza@mondragon.edu](mailto:info.enpresagintza@mondragon.edu)  
943 71 80 09

# "Domina irabazi izanak jarraitzera animatzen nau"

- ▶ Joko Olinpiarretan lortutakoaz egin digu berba
- ▶ Borrokaren elitean jarraitu edo ez, hor du zalantza
- ▶ Dominak jarraitzeko indarra eman diola onartu digu

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE  
Fresko egiten du Oletan. Autoa aparkatzeaz batera etxeko txakurrek gure bisita igarri dute, eta horren berri eman. Azken hilabetean makina bat kazetari ibili da undatarren baserri inguruan, baina ez txakurrak kanpotarren presentziara ohitzeko beste. Maider Unda (Oleta, 1977) azalduta ere zaunka jarraitu dute txakurrek, makila eskuan hartu eta nahikoa dela esan dien arte. Denak isildu dira.

Baserria zaintzearekin batera txakur horiek abuztua ezker metal puxka berezi baten guardian ere badaude, kirol bizitza oso baten balioa duen brontzeko dominaren zaindaria; eta noski, Undari erakusteko eskatu diogu: "Pisu galanta du", dio barrez. Kutxa gorri batean dakar domina: "Baina Interneten ikusi dut gainontzeko medallistek kutxa batekin eman zirela domina, eta nik ez dut halakorik. Batek daki zer egin nuen, momentuko emozioaz... Baina Olinpiadetako Batzordekoei eskatu diet mesedez halako kutxa bat bidaltzeko".

**"Jendeaz emozionatzen naiz"**  
Dagoeneko ia hilabete igaro da domina irabazi zuenetik, eta izan du egindakoa patxadaz baloratzeke astia: "Izan dut astia, bai. Bakardadea behar duen pertsona naiz, hori da nire izateko era.

Txakurrak hartu, mendi buelta lasaia egin eta egindakoaz hausnartu". Eta oraindik ere emozio kontuak ez ditu alboratu: "Bakarrik nagoenean ez, baina kurio-soa da, beste jende bat zelan emozionatzen den ikusita ni ere hunkitu egiten naiz. Aurrekoan gertatu zitzaidan Plentziako ferian. Emakume bat gerturatu zitzaidan oso emozionatuta, zorionak ema-

nez, eta ni ere emozionatu egin nintzen. Sekulakoa da jendeak borroka haiek ikusteko zelakoak egin zituen jakitea. Esaterako, Arrasatera joaten naiz kiropraktikoarengana, eta badakit Perutik jarraitu zituztela borrokak. Jendea oporretan zegoen, baina munduko bazter ezberdinetatik ibili ziren borroka jarraitzen. Hori da politena".



Maider Unda, astelehenean, Oletan duen baserriaren kanpoaldean. Badu brontzeko

## Dominak "faena" egin dio

Dominarekin lehenengo erretratuak egiten hasi eta berehala bota digu eguneko lehenengo titularra: "Faena ederra egin dit dominak,

orain ez dakidalako borroka libreaz jarraitu edo ez. Bosgarren egin izan banu lasai-lasai hartuko nukeen erretiroa"; baina domina horrek jarraitzeko indarra ematen dio. Hala ere, Undak behin baino gehiagotan azpimarratu du familia osatzeko duen nahia: "Baina ez dakit zenbaterainoko bateragarri den goi mailako kirolarekin. Baditut guraso diren taldekideak, eta gogorra dela esaten didate, denbora luzea egin behar izaten dutelako etxetik kanpo. Dena dela, badut horren gainean lasai pentsatzeko astia. Gainera, ez da nire kontua bakarrik. Nire entrenatzaileak -Luis Crespo, lanbidez elektrizista- ere badu zeresana. Emaztea engainatuta izan du azken denboraldia izango zela esanda [Barre], eta ez dakit zelan hartuko duen...".

Rioko Joko Olinpiarrek urrun daude, urrunegi, seguruenik, baina horrek ez du esan nahi urteren bat edo beste goi-goian jarraitu ezin duenik: "Garbi dut txapelketetan jarraitzen badut goi mailan egoteko izango dela. Ez dut maila jaitsi nahi eta Espainiako Txapelketak lehitzera mugatu, ez diot edonori ni irabazteko aukera eman nahi. Ipur-



Berria egunkarian.



Marca egunkarian.



Gara egunkarian.



El Mundo egunkarian.

### Oihartzun handiko domina

Espainiako selekzioak borrokan inoiz irabazi duen lehenengo domina jantzi zuen abuztuaren 9an Maider Undak, eta Euskal Herriko eta Espainiako komunikabideetan oihartzun mediatiko handia izan zuen kirol lorpenak. Egunkari askok aukeratu zuten Undaren erretratua azalerako, eta erretratu barik ere beste egunkari askok aipatu zuten albistea lehen orrian. Sare sozialetan ere zorion mordoa jaso zituen Aramaioko borrokalariak.



El Diario Vasco-n.



Noticias de Gipuzkoa-n.

**BESTE ALDE**

rent a car

Tel. 618 88 12 42  
bestealde@bestealde.com  
www.bestealde.com

## Hurbil gaude, zeu urrun eramateko.



Autoak



Ibilgailu industrialak



4 x 4



Autokarabana

Arriandi Auzoa, 12. 48215 Iurreta-Bizkaia  
Areiltza Doktorea eta Estrauntza kaleen arteko izkina. 48011 Bilbao-Bizkaia



**Eta orain baita ere Eibarren**  
Ondorengo instalazioetan:  
**NISSAN GAURSA**  
Otaola Etorbidea, 22. 20600 Eibar  
Gipuzkoa



domina non gorde, baina kutxa originalaren zain dago. | XABIER URTZELAI

**MAIDER UNDA**  
BORROKALARIA**"Kirolariondako ere ez zen batere erraza sarrerak lortzea"****Nor poztu zen, zu beste, domina irabazteaz?**

Nire entrenatzaile Luis Crespo.

**Txapela jantzi zizuten ospakizunetan.**

Nire mutil-lagunak jarri zidan, eta ez nuen erantzi. Txapel mordoa zeuden harmailetan [Barre].

**Iron Maider. Norena izan zen burutazioa?**

Mutil-lagunaren familiakoek kamisetak atera zituzten, eta lelo bat jartzeko galdeketa egin zuten euren artean. Uste dut koinatuaren burutazioa izan zela.

**Anekdotarik?**

Oheak oso-oso txikiak zirela. Uste dut saskibalo jokalariek ohe handiagoak eskatu zituztela.

**Ikusle moduan gozatu duzue finalen batekin?**

Domina eskuratzen genuenok sarrerak eska genitzakeen beste kirol modalitate batzuetarako, baina ez pentsa erraza zenik sarrerak lortzea, kirolariondako ere ez. Gizonezkoen saskibalo partiduko finalean izan ginena.

**Ostean, izan duzu oporrik?**

Bai, bost egun egin ditut mutil-lagunarekin Mediterraneo aldean. Jendea gerturatzen zitzaigun hondartzan, baina beti oso modu onean.

Luis Crespo entrenatzaileaz, azken borrokaren atarian.



Txapelarekin, komunikabideen aurrean.

Errusiako izar Yelena Isinbayeva atletarekin.



Saskibalo finalean Jorge Dueñas eta beste lagun batzuekin.



Mikel Odriozola eta Ainhoa Muruarekin.



diko galanta izango litzateke hori; lehia barruan daramatenek bada-kite zertaz ari naizen.

Domina irabazi izanagatik irabazitakoaz (30.000 euro) ezin-go du apartekorik egin: "Kopuru horren %20 momentuan atxikitzen didate, eta datorren urtean ere Haziendan aitortu beharko dut, horrenbestez...". Undak ez, baina Azerbaijan borroka libreko txapeldunak sari ederra izango du: "Gobernuak 600.000 euro eman dizkio, horrekin bai! [Barre]". Domina irabazita Maider Undak erakutsi du asmatu egin zuela

Madrilgo kirol zentrotik irten eta etxera bueltatzen: "Buru ere oso garrantzitsua delako, eta nik etxean egon nahi nuen". Gainera, modelo horrek kritikak jaso ditu: "Blumeko zentroan atletak dena dute eginda, erraztasun handiegia dute eta sakrifizioa galtzen da. Ondoei bizi dira".

Undak atsedean hartuko du irailean: "Bueno, ferietan ibiliko naiz. Konturatu gara jende gehiago gerturatzen dela, eta horri esker gazta gehiago saltzen dugula. Momentu hau aprobetxatu behar da".

**Astebeteko egonaldia, "motzegia"**

Maider Undak astebete egin zuen Londresen. Abuztuaren 5ean iritsi zen, eta borroka aurreko lau egunetan entrenatzeko eta borroka lekura -ExCel Arena kirolgunea- egokitzeko aprobetxatu zituen: "Joko Olinpiarretan burbuila baten barruan egoten gara, eta Internetez baliatzen nintzen handik apur bat irteteko. Abuztuaren 9ko borrokaldiaren ostean egun bakarra izan zuen turismoa egiteko: "Baina buruko min galanta nuen, tentsioak lepo inguruan eragiten dit-eta. Gustura egingo nituzke egun gehiago".

**Aktiba zaitez****mondragonLingua** rekin

HIZKUNTZAK IKASTEKO METODORIK ERAGINKORRENA.

[www.mondragonlingua.com](http://www.mondragonlingua.com)

Gure 10 ikasletik 8k  
Cambridgeko azterketak  
gainditzen dituzte.

MONDRAGON LINGUAren konpromisoa

Aktiba zaitez gure klaseekin.  
Adin guztiak; haurrak, gazteak eta helduak.  
Maila guztiak.  
Hizkuntza guztiak.

Aktiba zaitez teknologiarik aurreratuenarekin.  
Zure ordenagailutik bertatik, eroso asko.  
Gazteenentzat bideojoko didaktikoak.



ARRASATE

Araba etorbidea 4. Tel. 943 71 20 55

OÑATI

Motxon kalea. Tel. 943 71 60 00



eta iPad bat  
jasoko duzu doan,  
zure prestakuntzan laguntzeko.

Dauden guztiak agortu arte balio du promozio honek.  
Ikasle partikular helduei zuzenduta dago.

# Asteburu berezia Arantzazun: Amaren eguna eta bederatziurrena

Aparkalekua betetzen denean errepidea itxi egingo dute domekan

UBANE MADERA | OÑATI

Bisitari ugari izango ditu Arantzazuko asteburuan, fededunenak, bereziki. Batetik, bihar, zapatua, Arantzazuko Andre Mariaren bederatziurrena amaituko delako. Eta bestetik, domekan, Arantzazuko Amaren eguna delako.

## Gaur eta bihar, erromesak

Bederatziurrenarekin lotuta, gaur, egubakoitza, Errezilgo erromesekin ospatuko dute meza nagusia (12:00etan). Bihar, berriz, Legazpiko erromesen talde handia espero dute, Iñaki Beristain frantziskotarrak jakinarazi duen moduan.

## Kontzertu berezia

Horrez gain, eta Ama Birjinaren ospakizunekin bat eginez, Oñatiko Ganbara Abesbatzak kontzertu berezia iragarri du bihar: 13:00etan, *Josu ELberdinen Missa Ioannes Paulus II* obra estreinatuko dute. Kontzertuan, abesbatzak, Aitor Biainen zuzendaritzapean eta Josu Elberdinen laguntzarekin organoan, Mendelssohn, Busto, Jenkins y Faureren obrak kantatuko ditu lehen zatian eta Josu Elberdinen moteak eta Meza bigarrean.

## Autobus zerbitzu berezia

### JOATEKO

- ▶ 07:30etik 09:30ak arte ordu erdian behin.
- ▶ 09:30etik 13:30ak arte, ordu laurdenean behin.
- ▶ 13:30etik 20:30ak arte, atzera ere ordu erdian behin izango da autobusa.

### BUELTARAKO

- ▶ 08:00etatik 10:00ak arte, ordu erdian behin.
- ▶ 10:00etatik 13:45era, ordu laurdenean behin.
- ▶ 14:30etik 21:00ak arte, ordu erdian behin.

### GERALEKUAK

- ▶ Correos.
- ▶ Olakua.
- ▶ Kale Goiena.
- ▶ Beneditarrak.
- ▶ Arantzazu. (bueltarakoak, alderantziz)

## Domekan, gotzaina

Domekari dagokionez, berriz, 12:00etan da meza nagusirako hitzordua. Jose Inazio Munilla gotzainak gidatuko du. Homilia zertan oinarrituko duen ez du aurreratu, Beristain frantziskotarrak dioenez: "Abisatu diogu bederatziurrena esperantzari buruzkoa izan dela, hala ere, ez dakigu hori landuko duen". Dena den, bederatziurreneko gaia aprobetxatuta, mezu positiboa utzi gura izan du Arantzazuko fraideak: "Ikasi behar dugu etsipenerako motibo asko izan arren, esperantzarako motiboak bilatzen".

## Presoak gogoan

Domekakoarekin bukatzeko Arantzazuko Amaren egunarekin bat eginez, politikak ere izaten du lekua. Aurten, iaz moduan, murrizta izango da politikarien bisita: Diputazioetik eta Batzar Nagusietatik inor ez dela joango jakinarazi du Beristainek; eta Jaurlearitzakoek ere ez dutela abisurik bidali.

Dei egin dute, hori bai, Debagoieneko Senideek meza nagusia aintzat hartu, eta presoak gogora ekartzeko aldera, kale agerraldia egiteko. 11:30etik 14:30ak arteko baimena eskatu dute.



Zubizarreta, Rekalde, Urteaga eta Lasa, aurkezpenean. | G.A.

## Nafarroako konkistan gertatutako hizkuntza galera aztergai Arrasaten

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Gaur (egubakoitza) hasiko da Euskal Herriko III. historia-arien biltzarra, Arrasaten. Nafarroako konkistak eragindako hizkuntza galera eta eremu murrizketa izango dituzte aztergai lehen saio horretan.

16:30eko inaugurazio ekitaldiaren ostean, hitzaldiak izango dira (17:00-19:00), Nafarroak euskararen bilakaeran izandako eragina edota konkistaren ondorengo Nafarroa Garaian eta Behean euskararen egoera nola aldatu den aztertuko; Iñaki Lasa, Koldo Zuazo eta Jean Louis Davant izango dira hizlariak. Eta gero, gogoeta sakona eginez, historiari gaur egunera ekar-

tzeko, mahai ingurua egingo dute, Josu Lavin, Pako Aristi eta Julen Arexolaleibarekin.

Arrasaten, zehazki, hizkuntzaren gaia jorraztearen egokitasunaz berba egin zuen Xabier Zubizarretak astelehenean egin zuten aurkezpen ekitaldian, kontuan izanik azken urteetan lan handia egin duela Arrasatek euskararen alde.

## Hurrengo saioak

Biltzarraren bigarren saioa Leitza da, bihar, *Gaizkileen Muga* izenburupean; gazteluen suntsiketaz jardungo dute 14an Agoitzen; eta ondorioei buruz 15ean Iruñean. Itxiera 16an izango da, hori ere Iruñean.

**Nik maite dut euskara**

2012-2013 IKASTURTEA  
Matrikula zabalik  
**UDAL EUSKALTEGIAK**  
Izena emateko epea irailaren 3tik 25era

**2012-2013 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK**  
**Matrikula zabalik**  
**Izena emateko epea irailaren 3tik 25era**

♥ ♥ ♥ ♥ ♥ ♥ ♥ ♥

**EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE ikastaroak:**  
**1., 2., 3. eta 4. HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK (HOMOLOGATUTA)**  
EGA  
**MINTZAMENA** lantzeko ikastaroak  
**BOGA. AUTOIKASKUNTZA**  
**TOKIKO EUSKALKIA**  
**AZTERKETA OFIZIALAK MAIATZEAN ETA IRAILEAN**  
Erritmo eta ordutegi egokituak, txandakako taldeak

**BEKA SISTEMA**  
**IKASLEEK, LANGABEEK ETA ERRETIRATUEK**  
**PREZIO ERDIA**

♥ ♥ ♥ ♥ ♥ ♥ ♥ ♥

<b>ZUBIZARRETA</b> UDAL EUSKALTEGIAK Arantzazu 11 (Eskola Politeknikoaren ondoan) Tel.: 943 79 70 71 / 943 79 77 95 Fax: 943 79 81 43 <a href="mailto:ezkaltz@arantzazu-arrasate.net">ezkaltz@arantzazu-arrasate.net</a>	<b>BERISTAIN</b> UDAL EUSKALTEGIAK Beristain 44, 53 (Irizar Jantegia) Tel.: 943 79 41 53 <a href="http://www.beristain.net">www.beristain.net</a>	<b>LEITZA</b> UDAL EUSKALTEGIAK Kalea 11-4 Arretxibela Tel.: 943 79 31 63 Fax: 943 79 98 96 <a href="mailto:ezkaltz@leitza.net">ezkaltz@leitza.net</a>	<b>IRUÑEA</b> UDAL EUSKALTEGIAK Mendizola, 15-Zabala Olatu Tel.: 943 79 84 66 Fax: 943 71 38 98 <a href="mailto:ezkaltz@irunea.net">ezkaltz@irunea.net</a>
--	--	---	---

Irailaren 30a bitartean  
 Tel.: 943 79 81 43  
[ezkaltz@arantzazu-arrasate.net](mailto:ezkaltz@arantzazu-arrasate.net)

Jon Ugarte eta Juan Karlos Ioldi | Harrera Elkarteko ordezkariak

# "Preso eta erbesteratuei egokitzapen integrala eta duina erraztea da xedea"

- ▶ Arrasaten aurkeztu arren, Euskal Herri mailan jardungo du Harrerak
- ▶ Preso ohiek sortutakoa da, baina edozein herritarrek parte har dezake

UBANE MADERA | ARRASATE

"Gatazka politikoaren ondorio diren preso eta erbesteratuak herriratzean inongo instituzioen aurrean bigarren mailako giza-banakoa izan ez daitezten, edo sozialki baztertuak eragile politiko eta mediatiko jakinen presioengatik, edo langabeziarekin zigortuak...eskubide guztiekin, besteok bezala, euskal herritar izan daitezten" bermatzeko jardungo duen elkarteak aurkeztu zuten herenegun, eguaztena, Arrasaten: Harrera Elkartea.

Gure ibarrean aurkeztu duten elkarteak izan arren, Euskal Herri mailan jardungo du. Eta hasieran preso ohiek osatutakoa izan arren, "izaera zabala" eman nahi diote; Juan Karlos Ioldi kideak azaldu tako moduan, edozeinek parte har dezake eta "gisa guztietako" laguntza jasotzeko gertu daude: "Ekimenak, gauzaren praktikoak eta gauzagarriak, laguntza ekonomikoa...". Nondik norakoak azaldu dituzte Jon Ugartek eta Juan Karlos Ioldik

**Zein da Harrera Elkartearen zeregin praktikoa?**  
Bi ardatz izango ditu, eta lehena eta funtsezkoena da: kidesuna eta laguntasuna adieraztea. Datorrenak jakin behar du zailtasunak aurrez aurre izango dituela, baina, baita ere, horiei aurre egiteko, familiaren eta lagunaren laguntzaz gain beste lagun asko izango dituela prest. Jabearazi behar diogu ez dagoela bakarrik, esfortzu kolektibo bat antolatuta dagoela egokitzapen horretan zailtasunak leuntzeko.

Bigarrena: arazoei irtenbide errealak eta praktikoak ematea: administrazioaren aurrean, etxebizitzaren beharra, lanerako formazioa, kartzelatik aterata izaten den laguntzaren tramitazioa (400 euro), aho-konponketak, gidabaimena, lanean hasteko kreditu txikiak... Hitz batean: egokitzapen integrala eta duina erraztu.

**Beharrezkoa da egokitzapen hori?**  
Zalantza barik. Preso ohien arteko hausnarketan argi eta garbi azaldu zen hori: herrira eta etxera itzultzea fisikoki une batean gauzatzen den egoera izanik, egoera bera barneratzea egokitzapen prozesu bat da.

Faseak direla esango genuke. Hasierako poztasuna, hunkipena eta zorientasuna. Herrira itzuli, senide eta lagun artean, honek euforia moduko egoera batera eramaten zaitu... Baina bizitzak aurrera jarraitzen du: lagunek beraien bizitza dute, egoera berriari egokitu behar duzu, eta kartzel-



Harrera Elkartea aurkeztu egunean, Monterronen; lehen lerroan daude Jon Ugarte eta Juan Karlos Ioldi. | TXOMIN MADINA

## ESANAK

**"Datorrenak jakin behar du zailtasunei aurre egiteko kide eta lagun asko izango dituela prest"**

JON UGARTE | ELKARTEKO KIDEA

**"Nazioartean badira antzeko esperientziak; gertukoena Irlandan; berriki izan gara"**

JUAN KARLOS IOLDI | ELKARTEKO KIDEA

lako ametsak urrun geratzen direla ohartzen joaten zara... Familiarentzat zama zarela pentsatzen hasten zara, zalantza asko sortzen zaizkizu, galdera asko. Lana aurkitzea ere ezinbesteko behar bihurtuko da, ohartzen zarela lanik gabe bizitzan nekez egiten duzula aurrera... Horri guztiori aurre egiten ez badiozu, orduan sortzen dira buruko gaitzak, antsietatea, depresioak edo alkoholaren babesaren beharra...

**Asteon aurkeztu duzue elkarteak; hasita zaudete lanean?**

Urteotan ibilbidea garatzen joan den egitasmoa da. Hastapenak 80ko hamarkadan kokatu beharko genituzke: espetxetik irten berriak zirenen hausnarketetan. Kalera-tzeak tantaka izaten ziren, eta kaleratutakoak irten berriak laguntzen saiatzen ziren, elkartasuna eta kidesuna oinarri. Elkartasun adierazpenak hiriburuetan egitea errazagoa zen, baina, aldi berean, euren arteko koordinaziorik eza eta funtzionamendu ezberdina nabariak ziren. Bestalde, herrietako preso ohiek administrazioa-

ren aurrean sortzen ziren zailtasunei ahal zuten neurrian, bakarrik, egiten zieten aurre... Beraz, 2000ko hamarkadaren azken urteetan eta eraginkortasuna lortzeko, Jaiki Hadi Elkartearen laguntzarekin (errepresioa jasaten dutenei laguntza ematen dien mediku elkarteak), preso ohiek hausnarketa berri bat egin genuen. Bada, hori oinarri, laguntza sareak antolatzen saiatzen gara Euskal Herri osoan, Harrera Taldeak izenpean. 2012ko otsailean eta apirilean egin genituen batzarrak. Lehenengoan, funtzio eta eginbeharrak zehaztu genituen eta bigarrenetan, antolakuntza ereduak. Juridikoki zalantza izan genuen tresna legala aukeratzeko. Bi aukera genituen: fundazioa edo elkarteak. Azkenean, elkartearen aldeko hautua egin genuen.

**Zerbait gaineratu gura duzue?**

Bazkide kanpaina martxan jarri dugu (urteko kuoten bitartez). Elkarteko xedeekin ados dagoen edozein egin daiteke bazkide.

## Bi urteotako abuzturik okerrera langabezia arloan

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA

Langabezia tasak goranzko bidean jarraitzen du Debagoiengan: 3.332 lagun zeuden lan barik abuztuan (%11,18). Urtean zehar aurreko hilabeteetan izandako datuei begiratuta, azken emaitza uztailakoa (3.275, %10,99), ekainakoa (3.250, %10,90) eta maiatzakoa (3.286, %11,02) baino okerragoa da; aldiz, egoerak hobera egin du apirilarekin (3.344, %11,22) alderatuta. Martxokoa izan da 2012ak orain arte utzitako txarrena: 3.370 langabe (%11,31ko tasa).

## HERRIZ HERRI

HERRIA	LANGABEAK	EHUNEKOA
Antzuola	94	%8,62
Aretxabaleta	300	%8,87
Arrasate	1.357	%13,10
Bergara	834	%11,89
Elgeta	69	%12,73
Eskoriatza	210	%10,31
Leintz Gatzaga	7	%5,19
Oñati	461	%8,78
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.332</b>	<b>%11,18</b>

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

## Protesta gehiago Uribetxeberriaren askatasun eske

Gaur, egubakoitza, manifestazioa egingo dute Arrasaten (19:00etan, Herriko Plaza) Josu Uribetxeberria presoaren askatasuna eskatzeko.

Asteon hiru egunean egin dituzte agerraldiak presoaren jaioterrian, Uribetxeberriaren askatasunaren kontra fiskalaren errekurtsio posiblearen aurrean. Herrira ekimenak iragarri zuen helegitea etorriko balitz manifestazioa ere egingo zutela. Eta Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak eguaztenean jakinarazi zuen helegitea aurkeztuko duela, argudiatuta preso ez dagoela hiltzeko "berehalako arriskuan".



Ingulako klaseak •, Azterketa ofizialen prestatzaileak  
Eskolen errazgarritasun

Informazio zehatzak konpromiso gabe!

Tel.: 859 33 17 41 - 871 36 12 96 - Burdinate 5 behean, BERGARA



- Gitarra, piano eta txistu eskolak.
- Irakasleak hainbat metodo aukerarekin: solfeo, tablatura, zifratu amerikarra eta esperimentalak.
- Adin guztietarako.

Alfontso X Jakintsua 7 (Grupo San Juan) ARRASATE.  
Tel.: 627 13 26 14 • olatzurkia@gmail.com



Ainhoa Barrenetxea eta Leire Telleria | Arrasate Optika

# "Optika baino gehiago, optometria zentroa da"

Arrasate Optikak ibilbide luzea dauka: 1988an ireki zituen ateak, eta, aldaketa askoren ostean, orain Ainhoa Barrenetxeak eta Leire Telleriak daramate. Gogoz hasi dute proiektu berria.



Ainhoa Barrenetxea eta Leire Telleria, Arrasate Optikako sarreran.

**U**rteak daramatzazue optometriaren munduan lanean, ezta? Bai. Optika eta optometria ikasketak burutu genituen Madrilen, eta, ondoren, Ainhoa optometria klinikoa espezializatu zen eta Leire, berriz, optometria eta ikusmen terapian. Gure jakituria eta esperientzia batuta ilusio eta gogo handiarekin hasi dugu proiektu berria.

**Optometria konportamentala da zuen filosofia.**

Bai. Hala da. Gurea ez da optika soila, optometria zentroa baizik. Gure lana optometria konportalean oinarritzen da. Ikusmen arazoak beste zentzumenekin lotuta aztertu eta lantzen ditugu. Hau da, ikusmen arazoak aztertzeko orduan baloratzen duguna da ikusmen sistemak ondo funtzionatzeko duen eta beste zentzumenekin orekan dagoen. Hainbat azterketa egin ostean, horiek igorritako emaitzen arabera erabakitzen dugu terapia egitea komeni den edo ez.

**Nola egiten duzue lan?**

Modu ezberdinak daude, baina ikusmen terapiarekin, esaterako, begiko giharrak lantzen ditugu ikasketa prozesu bat eginda. Batzuetan, lehendabizi beste arlo batzuk landu behar

dira aipatutako oreka lortzeko, burmuinean lan eginda, esaterako, jatorrizko erreflexuak deritzon terapia baten bitartez. Ikusmen terapia hasi baino lehen ezinbestekoa da begiak egoera onean egotea. Badaude kasu batzuk non garrantzitsua den ukipen lenteak erabiltzea, nahiz eta umeak izan. Horretarako, topografoa ekarri dugu, ukipen lenteen adaptazio bereziak egin ahal izateko (orto-k, keratokoak...). Topografoa oso tresna

baliotsua da kornea patologien diagnostikoa eta jarraipena ere egiteko.

**Espezialista ezberdinen arteko elkarlanaren garrantzia azpimarratzen duzue.**

Bai. Hoberena litzateke gure lana beste espezialista batzuekin batera eramatea, nork bere ekarpena egin dezan; esaterako, oftalmologoak, logopedak, fisioterapeutak, iraskaleak, psikologoak edo psikopedagogoak, besteak beste.



Leire Telleria, ikusmen terapia egiten haur batekin.

**Zeintzuk dira eskaintzen dituzuen zerbitzuak?**

Begien azterketa orokorra egiteaz gain, enpresendako segurtasun betaurrekoak egiten ditugu, eta baita eguzki eta graduatutako betaurrekoak ere. Tonometroa ere badaukagu, begiko tentsioa aztertzeko eta glaukomaren prebentzioan lan egiteko.

**Zerbitzu berri gehiago ere badi-tuzue eskaintzeko...**

Bai. Optometria pediatrikoa eta umeei zuzendutako betaurreko egokiak eskaintzen ditugu. Lehen aipatu moduan, ukipen lenteen adaptazio bereziak egiten ditugu: orto-k edo gaueko lenteak, miopia kontrolerako lenteak,

umeendako ukipen lenteak... Pertzepzio arazoak eta irakurtzeko eta ikasketetarako zailtasunak dituzten ume eta gazteekin ere lan egiten dugu.

**Nori dago zuzenduta egiten dituzuen ikusmen azterketak?**

Umeekin lan handia egiten dugu, adin guztietako ume eta gazteekin, baina baita pertsona nagusiekin edota ezintasunak, atzerapenak edo zailtasunak dituzten pertsonekin ere. Gaixotasun edo traumatismoak izan dituzten pertsonen ikusmen arazoak izan ditzakete, eta horiek ere tratatzen ditugu. Anbliopia (begi alferra) eta estrabismo kasuekin ere egiten dugu lan.

**Zuen lan egiteko modua eta filosofia arrasatearrei gertuagotik erakusteko asmoa daukazue. Noiz izango da hori?**

Irailaren 12an ate irekiak edo inaugurazio moduko bat egitea erabaki dugu. Herritarrek gure lana eta batez ere gure filosofian berezitasunak ezagutzeari nahi dugu. Beraz, gure ordutegian hemen izango gara bezeroen kezka eta galderak erantzuteko, eta zenbait frogarekin ere lan egingo ditugu. Optometria konportamentala gure gainera materiala eta liburu informatiboak ere emango ditugu. Hori guztia, jateko eta edateko apur batekin lagunduta, noski.

**"Optometria konportamentala da gure lanaren oinarria eta filosofia"**

**"Irailaren 12an gure lana herritarrei erakutsiko diegu ate irekiekin"**



Kontzeziño kalea 6 ARRASATE  
Tel./Faxu: 943 79 25 98  
[www.arrasateoptika.com](http://www.arrasateoptika.com)  
[arrasateoptika@euskalnet.net](mailto:arrasateoptika@euskalnet.net)

Optometria konportamentala

•  
Ukipen lente bereziak

•  
Ikuspen terapia

Ainhoa Barrenetxea Lazkano  
Elkargokide zk.: 13.959

Leire Telleria Garai  
Elkargokide zk.: 18.134

**Joseba Asiron** | Historialaria, Nabarraldeko kidea

# "Nafarroaren konkistak ekarri zuen inoiz izan den euskal estatu bakarraren desagertzea"

- ▶ Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarra hasiko da gaur Arrasaten
- ▶ Nafarroaren konkistak euskarari ekarri zion galera aztertuko dute gaurko ekitaldian

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Gaur, barikua, Arrasaten hasi eta irailaren 18ra arte Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarra egingo dute. Duela 500 urte Gaztelako Erreinuak Nafarroa konkistatu zueneko gogoratu eta haren ondorioak aztertuko dituzte. Joseba Asiron zuzendariarekin egin dugu berba.

**Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarra egingo duzue oraingo barikuan hasi eta hurrengo bi aste-buruetan. Hirugarren biltzarra da aurtengoa. Aurrekoak non egin dira?**

Lehenengoa Biana egin genuen eta ia Oñatin. Biana, lehena izanda, oso gai orokorrak landu genituen, begi irekiera moduko bat izan zen, gaiari hurbilketa bat. Iaz, oster, batetik, gai nagusi horiek sakondu bai, baina, esaterako, 1200. urtean Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurraldeak konkistatu zituztenekoak aztertu genituen eta baita lurralde konkistatu horiek 1512an, Nafarroaren konkistan, ze paper jokatu zuten.

**Ze ondoriotara ailegatu zarete aurreko biltzarretan?**

Batez ere, biktima bat egin zela: Nafarroa. Argi geratu da ez dela egia anexioaren ideia, hau da, Nafarroak Gaztelarekin bere borondatez bat egin zuela. Mendeetan saldu digute konkista baketsu edo anexioarena. Eta, ia, Oñatiko Biltzarrean, esaterako, argi geratu zen 1200ean ere konkista bortitza izan zela, hau da, Arabak, Bizkaia eta Gipuzkoak ez zutela beren borondatez bat egin Gaztelarekin. Inon ez dago dokumenturik frogatzen duenik hiru lurraldeak beren borondatez Gaztelako Erreinuarekin bat egin zutela.

**Zergatik sortu zenuten eta zeinen ekimenez?**

Nabarralde elkartearen ekimenez. 1512ko lehia galdu genuen. Horrek ez du bueltarik. Baina ikusten genuen 2012koa aukera izan zitekeela historia eta garai hartako historiografia erreparatzeko, aztertzeke, eguneratzeko... Orain arte irakurketa bat ezagutu dugu, ofiziala, urteetan indarrean egon dena. Baina horri buelta eman nahi izan diogu. Azken urteotan idatzi dena aztertu nahi izan dugu, historiografia berri eta gaurkotua egiteko. Orain datoz beste erronka eta lehia batzuk: zela jendarteratu eta transmititu hau guztia, zela zabaldu eskoletan...

**Zela egin transmisio hori?**

Aldaketak sortzeko toki egokiena eskola da. Bertan sortzen dira hiritarrak eta iritziak. Gaur egun, zoritxarrez, erakusten den ikuspuntua okerra da, onartezina da.

**Betetzen diharduzue helburua?**

Erabat. Hirugarren kongresu hau bukatzen denean, 30 bat historialarik euren ponentziak gurekin kaleratuko dituzte. Gainera, baztertu ditugu *anexio* hitza, *ituna*, *bat egite zoriontsu* eta *baketsua*...

**Aurtengo Biltzarra Arrasaten hasi eta Iruñean bukatuko da.**

Bai. Aurrekoak Vianan eta Oñatin izan diren neurrian, aurtengoa bi asteburutan egingo da, eta, gainera, toki ezberdinetan: Arrasaten, Leitzan, Agoitzen eta Iruñean. Krisiak ere izan du zeresana. Eta leku ezberdinetan izaki, multzoka antolatu dugu egitaraua. Arrasaten, esaterako, hizkuntzaren aldetik aztertuko ditugu konkistaren ondorioak: hizkuntzaren eremu murrizpena eta abar. Gazteluen suntsiketa ere aztertuko dugu Agoitzen eta Iruñean ondorio nagusiak, orokorrak.

**Arrasaten hiru hizlari izango dira, ezta?**

Bai. Iñaki Lasa, Koldo Zuazo eta Jean Louis Davant izango ditugu berbalari. Konkistak euskararen atzerapenean ze eragin izan zuen galdetu diegu hirurei, eta hori aztertuko dute ikuspuntu ezberdinetatik. Eta, ondoren, mahai-ingurua egingo dute Julen Arexolaleibak, Pako Aristik eta Josu Labinek, aurrekoek aztertutakoaren gainean.

**Oñatin, ia; Arrasaten, aurtengoa. Bailara honetan egitea kasualitatea da?**

Ez. Interes berezia erakutsi duzue bailara honetan Biltzarreko. Erakundeen artean laguntza eta harrera erabatekoa izan da. Gipuzkoa osoan ikusi dugu berebiziko interesa. Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko harremana historikoa da, beti egon dira lotura zuzenak.

**Euskarari zela eragin dio konkistak?**

Oso nabarmenki. Unean bertan ez zen horrenbeste sumatu, baina konkistak ekarri zuen mendekotasun bat, erabaki batzuk ekarri zituen atzetik, eta horren ondorioz etorri zen euskararen erabilera-eremuaren galera.

**Aurtengoa, Albako dukearen tropek Nafarroa konkistatu zutela 500 urte betetzen hasten dira. Bitzarrak gain, ze beste ekimen egiten diharduzue Nabarraldetik?**



Joseba Asiron, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

**"Zela transmititu benetako egia, historiografia berria?"**

**"Baztertu ditugu 'anexio', 'itun', 'bat egite zoriontsu' eta halakoak"**

**"Orain arte irakurketa bat ezagutu dugu, ofiziala"**

**"Nafar gobernua euskarari gorrotoa dio eta ez du batere disimulatzen"**

Nafarroa Garaiaren konkistak 18 urte luzeko gerra ekarri zuen eta 500 urte dira orain, gertaera konkretuena. Oraingo domekan, irailaren 9an, esaterako, betetzen dira 500 urte Nafarroako Estatuko azken herria, Tuter, erori zela. Hitzaldiak eta egiten dihardugu guk, eta Nafarroa Bizirik taldeak ere hainbat ekimen antolatuta ditu.

**Eta Nafarroako Gobernuak?**

Nafarroako Gobernuak 2012. urtea ospatu nahi zuen, baina ikusi zutenean jendeak apurka-apurka badiharduela benetan gertatu zena ezagutzen, erabaki zuen atzera egin eta ezer ez ospatu eta ezer ez haizatzea. Ohiko bertsio ofiziala zein den gogorazten saiatzen dira ezelako eztabaidetan sartu gabe. Isilik daude.

**Beti esan izan da historia garailek idazten dutela...**

Bai, garailek idatzi dute kasu honetan ere, eta haiek kontrolatu, menderatu, izan dute historia eta beronen transmisioa eta tresnak. Oraindik ere haiek kontrolatzen dute.

**Konkista honen eragin nagusia zein izan da?**

Ekarri zuen, *de facto*, inoiz izan den euskal estatu bakarraren desagertzea. Horrekin batera guztia galdu genuen: hainbat erabaki hartzeko gaitasuna eta batez ere, beste estatu baten mendean egon beharra. Eta ondorioz etorri dira hizkuntzaren galera, gazteluen suntsiketa, kolonizazio kulturala...

**Hizkuntzari dagokionez, zela baloratzen duzu gaur egungo Nafarroako Gobernuak euskararekiko daukan jarrera?**

Tamalgarría. Iruñeko hiritarra naiz. Euskaraz lan eta bizi egiten duena. Eta Nafarroako gobernuaren erabakien biktima naiz. Hori sumatzen da telebista ikusten dudanean, irratia entzuten dudanean, medikuarengana noanean... alor guztietan. Nafar gobernua euskarari gorrotoa dio eta ez du batere disimulatzen, gainera.

**Euskara, *Lingua Navarrorum*?**

Kurioso da, ezta? Auto-gorrotan oinarritutako jarrera da Gobernuarena. Nafarroan pentsazina da Pirinioak, Aralar, Osasuna edo sanferminak gorrotatzea, baina, tamalez, euskarari gorrotoa dio Nafarroako Gobernuak. Ez dakit zergatik dioten horrenbesteko beldurra.





# HERRIAK

ONATI

## 2.238 metro gehiago

- ▶ 'Arantzazu Erreka I' kobaren esplorazioa bukatu dute Aloña Mendiko espeleologoen
- ▶ Gesaltza-Arrikutzen ondoren, Oñatiko bigarren kobarik luzeena da

Aloña Mendi espeleologia taldekoak 'Arantzazu Erreka I' kobazuloan



MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Lan mardula eta sakona egin ondoren, Aloña Mendi Espeleologia Taldekoek (AMET) hiru kilometroko kobazulo baten esplorazio lanak bukatu berri dituzte. *Arantzazu Erreka I* da koba horren izena eta 3.038 metro ditu. Gesaltza-Arrikutz kobaren ondoren, Oñatiko bigarren kobarik luzeena da. "Urtebeteko lana izan da. Gogorra, baina aldi berean polita. Oso gustura geratu gara taldeko kideak", esan digu AMETeko kide Santi Ugartek.

Guztira, 15 saio egin dituzte kobazuloan; horietako batzuk 15 ordukoak izan dira, eta emaitza begi-bistakoa da: hiru kilometro baino gehiagoko koba esploratu eta ikertu dute; lehenengo ikerketan zuena baino 2.238 metro gehiago.

**Lehen ikerketa 1969an**

Eta zergatik diogu lehenengo ikerketa? Bada, *Arantzazu Erreka I* kobako lehen esplorazioa 1969. urtean egin zuten AMETeko kide zirenek. Orduan egindako esplorazioaren eta topografiaren dokumentuak artxiboan gordeta zituzten. 800 metroraikoa ikertu zuten kobazuloa.



Baina, beste kobazulo batzuekin egindako moduan, zerbait berria aurkitzeko esperantzarekin berriro kobazuloan sartzea erabaki zuten espeleologoen.

Kobazuloa zabala eta ibiltzeko nahiko eroso da. "Galeria batzuk ezegonkorak dira, baina, oro har, lasai, arrisku barik ibil daiteke koban", dio Ugartek.

DATUA

# 15

SAIO

Horiek dira kobazuloan egindako saioak; batzuk 15 ordukoak izan dira.



ARGAZKIAK: ALOÑA MENDI ESPELEOLOGIA TALDEA

Sartu eta berehala konturatu ziren uste baino luzera handiagoa zuela kobak. Pasagune estuak igaro, eta goiko aldean elkarren artean komunikatuta dagoen galeria sare bat topatu zuten, 20-30 bat metroko saltoekin. Beheko aldean eskalada saio batzuk egin zituzten. "Galeriaren gainetik leiho batzuk daude. Horieta-kobatik sartuta gela luze batera heldu ginen. Beste leiho batek faila handi batera heldu ginen, eta han kobazuloa gela handienarekin egin nuen topo. 54x30 metroko gela, hain justu ere", esan digu Ugartek.

Eta non dago kobazuloaren sarrera? "Arantzazun, Urbiako bidea hartu eta azkeneko apartalekuan, Iturrigorrirako bidea hartuta dago. Erreka bazterrean dago sarrera. Akaso, erreka handituta doanean, ura sartuko da kobazuloa", dio.

**Nondik dator ura?**

AMETek egindako topografia eta neurketen arabera, *Arantzazu Erreka I* kobazuloak 3.038 metroko luzera dauka eta 110 metroko desnibela. Bestalde, esplorazioek uraren zirkulazioa ezagutzeko balio izan dute. "Akui-feroak behetik gora betetzen dira, eta, gainezka egiten dutenean, ura errekarara heltzen da. Kobazulo honetan ez da hori pasatzen. Arantzazu erreka urarekin doanean ere, kobazuloa lehor egoten da. Kobazulo barruan gaudenean, ura entzun egiten dugu. Galeriaren goiko aldean doa. Gu ere harriritua gaude ikusi dugunarekin", dio Ugartek.

Bestalde, kobazuloaren lekurik sakonenean erreka bat topatu dute. Oraindik ez dakite horko ura Iturrigorritik edo Erroitegitik datorren.

ESANAK

**"Kobazuloa zabala eta ibiltzeko nahiko eroso da"**

SANTI UGARTE | ESPELEOLOGOA



# IXADEBALDE

Arretxabaletako V. merkealdi azoka

Irailak 8, zapatua. 09:30etatik 20:00etara  
Mitarte kalean (eurla eginez gero, Iturrigorri pilotalekuan)

- Goizean trikitilariak, haur jolasak eta puzgarriak.
- Arratsaldean puzgarriak eta "Bixentak" musika taldea.
- 2 SARI EMANGO DIRA 19:30ean

ANTOLATZAILEA: LAGUNTZAILEA:



Orly, Eguzki eta Akorde  
Martin oinetakoak  
Amaia ume denda  
Brasileña akeita etxea  
Zubia  
Kilima  
Txilarra  
Asensio  
Zare  
Haurrak  
Gertu  
Belar meta  
U.D.A.  
M5  
Titare  
Kioskoa



ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

# Merkemerkaua, hilaren 15ean herriko kaleetan

Merkemerkauaren zortzigarren edizioa da, bigarrena udaberri-udako azokari dagokionez

## ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Herriko kaleak salerosketa gune bilakatuko dira irailaren 15ean, beste behin ere Ibai-Arteren ekimenez, Merkemerkaua egingo baita Alde Zaharrean.

Hogeita hamalau komertzioek euren produktuak aterako dituzte kalera 10:00etatik 20:30etara bitartean. Merkemerkauaren edizio berrira gerturatzeko diren lagunek askotariko gaiak eskuratzeko aukera izango dute, prezio onean, gainera. Mertzeriako arropak, bitxiak, zapatak, lurrinak, ile-apaindegi zein parafarmaziako produktuak...

Eta dendetako postuez gainera, kaleak girotzen arituko dira baita ere herriko trikitilariak goiz eta arratsalde, 11:30etik 13:30era aurrean, eta 18:30etik 20:30era ondoren. Bestalde, 17:00etan buruhandien txanda izango da.

## Ezagutzera emateko

Merkemerkauaren bidez, dendariak eskaintza bereziak egin bai, baina bestelako helburu bat ere lortzen dutela adierazi du Kapikua dendako eta Ibai Arteko kide Ima Ruiz Oiagak: "Saltzea garrantzitsua izaten da, baina Merkemerkauaren bidez hor gaudela adierazten diogu herritarri; gure denda ezagutzera ematen dugu modu horretan."

Guztira, zortzi Merkemerkau egin dira orain arte; hala ere, udaberri-udako azoketatik bigarren edizioa da irailaren 15ean egingo dena.

DATUA

# 34

SALTOKI

Merkemerkauaren edizio berri honetan Ibai-Arteko 34 dendak ipiniko dituzte postuak herriko alde zaharrean.

## 'Arrasate, Museoa Zabalik'

Bestalde, Ibai-Arteko beste promozio bat jarri du martxan. Arrasateko historia aberatsa daukala aprobetxatuz, herriko Merkataria eta Zerbitzuen Elkarteak aitzakia moduan hartu du hori irail osoa iraungo duen *Arrasate, Museoa Zabalik* eskaintza abiarazteko.

Hain zuzen ere, Ibai-Arteko txartelarekin erosketak ordaintzen dituztenen artean 40 ibilbide kultural bikoitz zozkatuko dituzte. Hau da, bisita gidatuen bidez Arrasateren historia ezagutzera emango diete herritarrei.

Irabazleek berehala jakingo dute irabazi duten edo ez; hain zuzen, ordainketa egiteko unean bertan eskuratzen duten erosketatik *Ibilaldi Kulturala* agertuko da idatzita.

Hala egokituz gero, sarituek urriko eta azaroko zapatuetan zehar herriko kaleetan egingo diren bisita gidatuen hitzordua zehaztu beharko dute 943 79 30 90 zenbakira deituta.

# Erabakitze dago udal zerbitzuen BEZ egoera

## Z.V.D.M. | ARRASATE

Irailaren 1a ezker indarrean dago uztailean Espainiako Gobernuak iragarritako balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZ) egoera.

Herritarren poltsikoetan eragina izango du modu batean edo bestean neurri horrek: argindarraren fakturan, botiketean, ordenagailu, ogi zein eskola materiala erostera-koan...

Bestalde, Arrasateko Tokiko Gobernu Batzarrak oraindik ez du erabaki igoerak nola eragingo dien udal zerbitzuei (ura, zaborra, hilerria, kiroldegia...).

Udaletik jakinarazi duteenez, zergak igotzeak Udalaren gastuak handituko ditu. Ondorioz, egoera berrira egokitze-ko asmoz, nola aplikatu aztertzen ari dira.

# Salgai daude Arantzazura joateko txartelak

## Z.V.D.M. | ARRASATE

Irailaren 9an Ama Birjinaren eguna da, eta zenbait arrasatearrek hilaren 16an egingo dute erromesaldia Arantzazura, jaiegunaren osteko domekan, hain zuzen. Batzuek oinez egingo dute Santutegirako bidea, baina, urtero bezala, autobusean bertaratzeko aukera ere egongo da. Irteera 09:00etan izango da Garibaitik eta bidean geldialdi bat egingo du, Gesaltzan, nahi dutenek bertatik Arantzazurako bidea oinez egiteko aukera izan dezaten. Itzulera, aldiz, 14:00etan izango da.

Interesatuak, irailaren 14ra arte Arrasateko Ecuador bidaia agentzian dituzte txartelak salgai 10 eurotan.

**MONTE TABERNA**  
edari, jana eta kirola

**Musika erakutsi 2**  
Tel.: 943 79 20 66

# Saskibaloia teknikak hobetzen

Irailaren 3tik 7ra bitartean, 8 eta 15 urte bitarteko 25 neska-mutiko lurrirpe kiroldegian elkartu dira Ointxe! Saskibaloia Taldearen Teknikazio Jardunaldian parte hartzeko. Bertan, Josu Larreategiren gidaritzapean, saskibaloia teknika hobetzea izan dute helburu. Horrelako saio bat egiten duten aurreneko aldia izan da, eta gustura daude antolatzaileak emaitzarekin..

Ikasi eta landu

# euskara bizia

**Ikasketa**

**Ikas Bua**

**Ikaslagia**

**Ikas-zerbitzua**

**Wika**

**Ikas-zerbitzua**

**• EUSKALDUNTZA** (5 / 10 ordu aslean, errolekoak)

- B1 maila edo 1. perfila; erabiltzaile autonomoa.
- B2 maila edo 2. perfila; erabiltzaile gaitua.

**• MINTZA-TALDEAK** (5 ordu aslean)

- Aslelan 2 egun ahaz hobetzeko eta soltatzeko.

**• AUTODIKASKUNTZA** (190 ordu)

- Programazio personala ebazteko + tutoretzak + mintza-lanak.

**• C1 MAILA / 3. MAILA / EGA** (5 ordu aslean)

- Aslelan 2 egun azterketa ofizialak prestatzeko.

**• C2 MAILA / 4. MAILA-PERFILA** (6 ordu aslean)

- Aslelan 2 egun + ebazteko lanak + proiektuak + tutoretzak. (180 ordu).

Bekak Arrasateko Udalaren laguntzari

**MATRIKULA zabalik**

2012-09-28ra arte  
Galze, 11:00etatik 13:00etara.  
Arrasatez, 16:00etatik 20:00etara

www.aek.org | eman izena | 943 77 03 69

**LETICIA DOMENECH PEREZ DOKTOREA**

**Psikologia kliniko hezitzailea**

Palacio Mendia zentro medikoa  
Erdiko kalea 22 • Arrasate  
Tel.: 943 79 72 16

- Gurasoentzako programa hezitzaileak
- Ikasketen planifikazioa
- Hiperaktibitatea / Arreta defizita
- Jarrera aldakuntza
- Dislexia
- Ez-hitzeako ikasketen gorsabeherak

- Autismoa
- Asperger sindromea
- Estutasuna - agresibitatea
- Haurren bekkurak
- Nerabezaroa eta depresioa
- Eskola-jazarpena...



# BERGARAKO SHOTOKAN KLUB BAT BAINO GEHIAGO




SHOTOKAN  
KARATEA

Ez baduzu sentitzen,  
ez duzu ulertzen.



Shotokan Karatea  
musika bezala da,  
disfrutatzeko  
sentitu egin behar da.



Umiltasuna

da Shotokaneko  
karateken bereizgarria.



Handia izatea  
ez da tamainaren arabera  
neuritzen, jarreraren  
arabera baizik.



DIZIPLINA

arrakastaren osagai garrantzitsuen da



Karatea ez dut bizi izateko  
praktikatzen, karatea  
praktikatzeko bizi naiz.



Tatamian arima uzteak  
du benetan garrantzia



Shotokan Karatea ez da kirola bakarrik, adiskidetasuna, errespetua  
eta arte baten tradizioa baloratzen erakusten duen bizi izateko era baizik.



Erraza balitz, futbola jitz ateke.



XABIER, AIZKORNO, ALBIZ, ENI, ZARTEA, ELIOTE, MARTINE, HEBA, JESUS, KANDE, OSKI, GORRI, RAUL, IZUR, JUDER, ABEL, NABU, CARLOS

SHOTOKAN Karate eskolak IRAILAREN 10ean hasiko dira:

Astelehen, asteazken eta ostiraletan.

Urteak: 1. txanda, 17:30etatik 18:30era  
2. txanda, 18:30etatik 19:30era

Nagusiak: 19:30etik 20:30era

Harremanetarako deitu 615 79 90 78 telefonora, [bergarako.shotokan@gmail.com](mailto:bergarako.shotokan@gmail.com) helbidera idatzi  
edo zatoz Bergarako Ipintza Institutuko DBH eraikuntzako gimnasia orduetan.

[bergarakoshotokankaratedo.es](http://bergarakoshotokankaratedo.es)



# San Martinen kanonizazioaren 150 urtemugak jantzi egingo ditu jaiak

- ▶ Besteak beste, Surragako gurutzearen erreplika jarriko dute plazan
- ▶ Omenaldia ere egongo da eta danborradako martirioa indartuko dute

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Aurten 150 urte betetzen dira Pio IX.ak San Martin Agirre misiolaria kanonizatu zuela. Era berean, 50 urte betetzen dira Surragan haren omenezko gurutzea jarri eta Simon Arrietak udaletxean murala margotu zuela. Eta urteurren horien eragina nabarmena izango da San Martin jaietan.

San Martin Agirre plaza hasi da jai itxura hartzen. Hala erakusten du egunotan muntatzen dabiltzan oholtzak. Itxura ezberdina, gainera; izan ere, Seminario aldean beharrean, udaletxe aldean jarri dute, eta hori berria da. Baina ez da plazako berrikuntza bakarrik izango, San Martinen Surragako gurutzearen erreplika bat jarriko dute eta oholtza ondoan; egurrezkoa eta originalaren erdia tamainaz.

Horiek, dena den, berrikuntzen aperiitiboa baino ez dira, urtemugei behar bezalako pisua emateko sortutako talde eragileak

ekitaldi ugari antolatu ditu eta egubakoitzean, hilak 14, hasi eta domekara arte. Hauek daude taldean: Jon Molina, abadea; Jesus Arregi, Surragako gurutzearen eraikuntzan lan egin zuen apa-jadorea; Rikardo Azkargorta (haren aitak, Fernandok, diseinatu zuen gurutzea); Miguel Angel Elkoroberezibar; Lorentxo Las-

kurain; Valen Moñux; eta Jesus Elortza alkatea.

## Gurutzearen egileei omen

Egubakoitzean Nagasakitik jasotako ikus-entzunezko materialarekin osatutako bideo berezi bat erakutsiko dute, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan egingo den ekitaldian, eta hor, plazan jarriko

duten gurutzearen erreplika ere inauguratuko da.

Zapatuan, 18:00etan, meza berezia egingo da Surragako gurutzean, bertsoz eta aurrekuaz lagunduta. Eta horren ondoren, ekitaldi solemnea egongo da osoko bilkuren aretoan, Surragako gurutzea zein murala egin zutenak omentzeko. Hain justu, Fernando Azkargorta, Simon Arrieta, Mari Cruz Uriarte eta Jesus Arregi omenduko dituzte –lehen hiruren kasuan senitartekoak egongo dira–. Osoko bilkuren aretoan batuko dira, 19:30ean, eta Simon Arrietak udaletxeko eskaileretan marraztutako muralaren 50 urteak ospatzeko musika saioa egin ondoren, omenaldi ekitaldia San Martin plazan jarritako gurutzearen erreplikaren aurrean egingo dute.

## Martirioa indartuko dute

Danborradan ere berrikuntzak egongo dira; batik bat, martirioa



Aitzol Muxikak egingo du aurten San Martinen p



Simon Arrietak udaletxean margotutako martirioaren murala. | GOIENA

indartuko dute. Batetik, Aitzol Muxikak egingo du San Martinen papera, hura izan zelako San Martin 1997ko *San Martinen Estantpa* ikuskizunean. Horrekin batera, urtero Gabero abesbatzakoek antzezten dute martirioa eta aurten *San Martinen Estantpa*-n parte hartu zuten zenbait lagunak eta Orfeoiko kideen laguntza izango dute. Gainera, 97ko ikuskizuneko –Valen Moñuxek eta Maite Aristegik egin zuten gidoia– zenbait detaile ere gehituko zaizkio aurtengo antzez-



Barrenkale 24 - Tel.: 943 76 10 16 - BERGARA

Kristinak eta Edurnek  
udazken-neguko  
denboraldi berria  
aurkezten dizuete.

Ostegunetik aurrera  
berri ere zuekin!



opera. | GOIENA

penari. Danborradako beste berrikuntza bat izango da Udal Musika Bandak ez duela kalejirarik egingo. San Martin plazan egongo da eta kaleetan barrena jarritako altabozen bitartez entzungo da musika.

#### Martin eta Martinak batu

Domekan, San Martin eguna, Martin eta Martina izeneko bergararrak batzeko dei ere egin dute. 12:00etarako egin dute hitzordua, San Martin plazan, eta talde argazkia ateratzea da asmoa. Horren ondoren, 12:30ean Udal Musika Bandak kontzertua egingo du, eta aipatzekoa da *San*

*Martinen Estanpa* obra jotzen duenean San Pedro parrokiako kanpai berrituen hotsa entzuteko aukera egongo dela. Are gehiago, San Pedroko 16 kanpaiak berritu dituztela aprobetxatuta, domekan, 10:00etan, Aretxabaletako Arientzako Kanpai Jole Eskolako kideek kontzertua emango dute.

San Pedro parrokiako San Martinen bi koadro ere erakutsiko dira jaietan: *Martirioa* eta *Santuak zeruan*, hain zuzen. San Pedro parrokiaren obretan dagoenez, Santa Marinarantz zintzilikatu dituzte, Kataibiako sarreraren ondoan jarri duten egitura.

### Nagasakiko irudiekin osatutako bideoa

Nagasakitik jasotako materialarekin osatutako bideo berezia erakutsiko dute irailaren 14an, egubakoitza, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan egingo den ekitaldian. Bideo horrek hauek batzen ditu: Nagasakiko Martiren Monumentuaren eraikuntzaren 1962. urteko irudiak –Gipuzkoar ordezkariak ere ageri da–; Nagasakin bertan aurtengo ekainean kanonizazioaren 150. urteurrenako ospakizunetan jasotako irudiak; eta, garrantzitsuena, Nagasakiko 26 martiriei buruz 1931. urtean egindako filma.

Horiez gain, oraindik estreinatu gabe dagoen aurten egindako marrazki bizidunen film labur baten irudiak ere lortu dituzte eta horiek ere erakutsiko dituzte. Bestalde, aukerarik izanez gero, Nagasakiko 26 Martiren Museoko zuzendariarekin izandako elkarrizketa ere gehituko zaio. Primizia handia, beraz, beragararrantzat eta gipuzkoarrantzat, oro har.

Aurkezpenean, film horiek lortu dituen Miguel Angel Elkoroberezibar bergararrarekin batera Jesus Elortza alkatea izango da.

Asteburuan barrena, udaletxeko arkupeetan jarriko duten pantaila handian ere ikusi ahal izango da ikus-entzunezko hori.



Brigadako langileak Surragako gurutzaren erreplika egiten. | VALEN MOÑUX

### OHARRAK

#### ERREAL ZALEEN LOTERIA

Gabonetarako atera dute eta bazkideei jakinarazten diete talonarioak eskura daitezkeela Matxiategi elektrizitate-dendan. Salneurria 3 euro izango da; 2,40 euro loterian jokatuko dira, 94.557 zenbakian. Gainontzeko 0,60 euroak zozketarako izango dira. Zenbaki hori Bergaran bakarrik Erreal Zaleak elkarteak edukiko du eta herriko taberna eta dendetan salgai jarriko dute. Loteriarekin batera zozketa egingo da: urtarrilaren 19 edo 20ko Reala-Bartzelona partidurako bi sarrera eta Amara Plaza hotelean bi lagunendako gaua eta bazkaria edo afaria.

#### AZOKA ETA DASTATZEA DOMEKAN SAN JUANEN

Azoka 11:30ean izango da eta dastatzea, 12:30ean. Ortu lehiaketan parte hartu zutenekin egingo da. Plater konbinatua eta edaria 5 eurotan emango dute.

#### POSTAZ BOZKATZEKO BULEGOA IREKI DU EAJK

Legebiltzarrerako hauteskundeetan botoa postaz emateko bulegoa jarri du EAJK. 11:30etik 12:30era eta 18:30etik 20:00etara egongo da zabalik. Edozein kontsulta egiteko deitu 943 76 47 00 zenbakira.

Giartzu Gimnasioa  
Boni Laskurain 3, behea. BERGARA  
943 76 30 05 • gimnasio@giartzu.com  
www.giartzu.com

# 2012 / 2013 Ekintzak

Matrikulazio epea zabalik!

## Spinninga

(zentro ofiziala)

## Body Balance

(Less Mill Zentro Ofiziala)

## PCOD

Osteoporosia eta diabetesa kontrolatzeko programa berezia

## Fitball

## Easy Line zirkuitua

## Tai Chi Chuan

(irailaren 14an, ostiralean, ate irekien eguna: 15:30ean. Proba ezazu konpromiso barik)

## Kyokushin karatea

(Nazioarteko, Espainiako, Europako eta Japoniako federazioak)

## Helduentzako karatea

(Espainiako, Euskadiko eta Gipuzkoako federazioak)

## Jiu Jitsu

## Defentsa pertsonala

## Karateko haur eskola

(Gipuzkoako Karate Federazioa)

## Muskulazioa

(kirol espezifikoentzako programa bereziak suhiltzaile eta udaltzain probetarako prestaketa...)

## GIARTZU gimnasioa



Mikel Biain alkatea Alberto Plazaolaren anai arreba ondoan dituela. | O.E.

# Plazaolari babesa emateko martxa 15ean

Udalak bat egin du Herriraren deialdi horrekin

**OIHANA ELORTZA | OÑATI**  
 Alberto Plazaolari elkartasuna adierazteko martxa antolatuta du Herrira elkarteak irailaren 15erako. Udal ordezkaritza bat ere joango da. Curtisko (Galizia) espetxe zuzendariari hitzordua eskatu diote egun horretan hartuak izan daitezkeen eta maiztean Oñatiko Udalak aho batez hartutako mozioaren berri zuzenean emateko. Bilduko udal ordezkariek, Alberto Plazaolaren senideek eta hainbat herritarrek eman zuten eguaztenean horren berri Herriko Plazan, eta herritarrek animatu zituzten martxan parte hartzeko. Bihar ere joan-

go dira hainbat lagun Galiziarra, alkatea tartean. Zinegotziak Plazaola bisitatzen segitzeko eta eskutitzak idazteko konpromisoa hartu dute.

## 22 urte kartzelan

Alberto Plazaola Anduaga 1990eko azaroan atxilotu zuten Frantziara. 1996an estraditatu zuten eta harrezkero hamaika espetxetan egon da. Egun, Galizian dago, etxetik 650 kilometrora. Legearen arabera 2016an aske egon beharko luke, baina maiztean *Parot* doktrina aplikatu zioten eta 2026ra arte luzatu diote espetxealdia.

# Gaztetxe bihurtu dute Antixena gazteek

**OIHANA ELORTZA | OÑATI**  
 Antixena etxea okupatu eta gaztetxe bihurtu dute herriko hainbat gazteek. Eguaztenean egin zuten okupazioa. "Eraikina Udalarrena da eta MUK erabiltzen du, baina hutsik egon da azken bi urteetan", zehaztu zuen Eñaut Uribesalgok eguaztenean, ehun bat gazte bildu ziren prentsurrekoan. "Herriko gazteon gune askea moduan erabiltzea da gure asmoa".

Eraikina okupatu aurretik horren berri eman zieten Udalari eta MUri. "Bi udal ordezkariek egin dira hemen eta bilera bat egingo dugula esan digute. MUKok ere horixe gura dute, gurekin berba egin. Barruan duten materiala jasotzera etorriko direla ere esan digute. Antixena inguruan

bizi diren herritarrei ere eman diegu okupazioaren berri eta gaur bilera dugu eurekin kultura etxean, gure asmoak eta euren zalantzak argitzeko eta adosteko", dio Uribesalgok.

Gaur, gainera, 17:00etan batzarra egingo dute gaztetxe berrian, eta herriko gazte denak daude deituta. Gaztetxea zabalik dago gau eta egun eta ekintzak egingo dituztela aurreratu dute.



Eguaztenean egin zuten prentsurrekoa gazteek. | O.E.

# Uribarriko elkarteak inauguratuko dute bihar

**O.E. | OÑATI**  
 Trikitilariak, dantzariak, udal ordezkariek eta Uribarriko auzotarrak izango dira bihar, zapatua, Uribarriko elkarte gastronomi-

koaren inaugurazioan. 12:00etan da ekitaldia, eta luntxa egongo da joaten diren guztiendako.

Duela bi urte pasa, 2010eko hasieran, hasi ziren auzotarrak

elkartera sortzeko ideia martxan jartzen. Lanak, berriz, duela urte eta erdi hasi zituzten. "Lurra eta paretak txukundu eta indartu genituen lehenengo, gainerako lanak hasi aurretik", zehaztu du elkartera presidente Mikel Esnaola auzotarrak.

Elkartearen eraikinean eskola zegoen lehen, eta irakaslearen etxea zen egun elkartera dagoen lokala. Goian auzo etxea dago; hantxe egiten dituzte bilerak auzotarrak azken sei urteetan.

Egun, 35 bazkide ditu Haizpe, baina 50endako tokia du. Auzoan jaio edo bizi direnek eta haien seme-alabek dute bazkide izateko aukera eta horretara animatu gura ditu presidentek.



Haizpeko lau bazkide elkarterko barran. | M.B.

Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienarian!

UDAKO ARGAZKIEN VIII. GOIENA LEHIAKETA

## Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

Bidali zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: [goiena.net/blogak/argazkiak](http://goiena.net/blogak/argazkiak)

Baita hemen ere: [udakoargazkiak](http://udakoargazkiak)



Har ezazu partel

## Oinarriak\*

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
  - Egilearen izen-abizenak eta herria.
  - Harremanetarako telefonoa.
  - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
  - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailearen 2tik irailaren 14ra (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: [argazkiak@goiena.net](mailto:argazkiak@goiena.net) helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, Arrasate. ARETXABALETA: Basabe poligonoa E05, Aretxabaleta.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.

- Irabazleak nortzuk diren urriaren Tean jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantz erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

## HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daitezke lehiaketan, honela:
  - Twitter bidez, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda.
  - Facebook bidez, [facebook.com/udakoargazkiak](https://facebook.com/udakoargazkiak) orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitate, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

\* Oinarri guztiak: [ttiki.com/40738](http://ttiki.com/40738)

## Sariak

1. saria: Canon EOS 1100 D reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.
  - 12 megapixel / HD bideo-grabazioa
  - 2,7 hazbeteko pantaila
  - AF fokatzeko sistema, 9 puntukoa
  - ISO 100-6400 sensibilitatea
  - EF eta EF-S objektibo guztiekin bateragarria.



2. saria: Cantabriako lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaia-en eskutik.
  3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- Herritarren saria:** bi pertsonarendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Debako AISIA hotolean.
- Boto emaleentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:



**GURE AMETSA**  
JATETXEA





Iaz 30 tortilla batu zituzten Zurrategi plazan. | ANELKAR

## Elkartasun Festa izango da zapatuan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Anelkarrek, Afrikarekin duen senidetasuna berretsiz, irailaren 8rako, zapaturako, Elkartasun Festa antolatu du. "Helburua da herritarrek parte hartzea, elkartasuna adieraztea; horretarako, tortilla bat ekar dezakete, 18:30erako, Zurrategira", azaldu digu Anelkarko kide Jabi Etxanizek. Iaz, esaterako, 30 tortilla batu zituzten.

Hala, elkartasun gisa, 20:45etik 22:15era Zurrategi plazan afaria izango da -2 pintxo erraldoi, edaria, kafea eta pastak-, 7 euroren truke. Ondoren, Torresoroan, 22:30ean, Virginia Imazen

eskutik *Encantadas* antzezlanaz gozatzeko aukera egongo da. Sarrerak salgai daude Itzar liburu-dendan, 8 euroren truke.

Batzen den dirua Kongo eta Senegalgo proiektuak bultzatzeko izango da.

Kongoko Kapiri herrian iturriak eta garbitokia eraikitzen dihardute; Senegalgo Djimbering herrian, aldiz, amaetxe eta hezkuntza lanekin jarraitzeko asmoa dute.

"Elkartasun Festa debagoien-dar guztiei zabalik dago; norberak ahal duen moduan, elkartasuna erakustea da helburua", nabarmendu digu Etxanizek.

### Irailen ere prezioak mantenduko ditu Udal Gimnasioak

Ikasturte berriko jardueren artean, ohikoak eta berriak diren esakintzak prestatu dituzte: hipopresiboak, dantza garaikidea, tonifikazioa, pilatesa, spinninga... Irailaren 10etik 14ra ate irekiak izango dira, Eguzki auzoko gimnasioa ezagutzeko. Informazioa blogean: [antzuelakogimnasioa.blogspot.com.es](http://antzuelakogimnasioa.blogspot.com.es).

Xabi Azkarate gimnasioko koordinatzaileak azpimarratu nahi izan digu esfortzu handia egin dutela prezio berak mantentzeko. "Herritarrek orain arte izan duten jarrera eskertzekoa da, eta ea hemendik aurrera ere horrela jarraitzen duten", dio.

### OHARRAK

#### HITZALDIA

*Konkistak 500 urte, deuseztatu ezin izan zuten oroimena*, hilaren 12an, Orlaranen. 18:30ean. Hizlaria: Patxi Abasolo Lopez (1512-2012 Nafarroa Bizirik).

#### ODOL EMATEA

Hilaren 13an, eguna, odol ateraldia egingo da Orlaranen, 17:00etan.

## Beheko auzoko aparkalekuko lanak udazkenean hasiko dituzte

M.A. | ANTZUOLA

Beheko auzoko garajeetako arazoari irtenbidea emateko, akordioa egin du Udalak bertako bizilagunekin. Hala, martitzeneko osoko bilkuran, Udalak bere gain hartuko dituen konponketak finkatzeko proposamena onartu zuten -Bilduk eta EAJ alderdiek aldeko botoa eman zuten-. "Bizilagunek eskatuta elkartu egin ginen eta aparkalekuetan dauden itogin arazoei irtenbidea bilatzea adostu genuen. Geure ardurak eta euren ardurak non dauden mugatu genituen; hala, bakoitzak non jardun behar duen garbi izateko. Orain guri dagokigunez, itogin horiek konpontzeko lanak egin nahi ditugu: ura batu aparkalekuetara ez sartzeko", azaldu digu Iñaki Iartzak, Hirigintza zinegotziak. Ura ondo batzen eta bideratzen saiatu behar dugu, hori da gure lana. Aparkalekuaren sabaitik ez sartzeko; sartu aurretik urak batzea da gure asmoa, eta, behingoz, konpontzea. 60 garajetatik lau gutziz kaltetuta daude eta autoak ezin dira bertan sartu, uraren karearekin hondatu egiten direlako", gaineratu digu.

Urte askoan bueltaka dabilen arazoa da, eta Udalaren borondatea eta asmoa da arazo hori lehenbailehen konpontzea.



Beheko auzoko garajeak. | M.A.

Bada, lanak udazkenean hasiko direla azaldu digu Iartzak, negua baino lehen bukatzeko asmoz. 12.000 euroko aurrekontua du Udalak lan horiek egiteko; baina asmoa da diru gutxiagorekin egitea, 9.000 euroko aurrekontuarekin. "Hiru enpresaren proposamenak ditugu; horietako batek gure aurrekontura egokitutako proposamena egin digu".

"Erabilpen publikoko parkea da; lehen, ziburuak ere bazeuden, baina kendu egin genituen. Jarri gabe daude, baina gure asmoa da beharrezko konponketak egin eta arazoari irtenbidea eman ostean berriro parkea berreskuratzea eta ziburuak jartzea", dio.

# ariznoa elkarte

## 2012-2013 KURTSO HASIERA

**Lehiaketako kategoriak (5. mailatik gorakoak):**  
irailaren 7an, 18:00etan, Labegaraletan

**Aurre-benjaminak I (5 urtekoak):**  
irailaren 18an, 17:30ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan

**Aurre-benjaminak II (1. eta 2. mailakoak):**  
irailaren 18an, 18:15ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan

**Benjaminak (3. eta 4. mailakoak):**  
irailaren 18an, 19:00etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan

**Antzuolako taldea:**  
irailaren 26an, 14:30ean, frontoian



**Matrikula berrientzako bilera informatiboa**  
irailaren 13an, 18:00etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan

**Harremanetarako:** [ariznoa\\_ge@hotmail.com](mailto:ariznoa_ge@hotmail.com)

600 22 40 49 telefonoa (10:00-13:00 eta 17:00-20:00 ordutegian)

# Ordaindu egin behar da Ibarraundira sartzeko

Zubiaterko labea eta Ibarraundi museoa ikusteagatik ordaindu egin behar da iraila ezker

**AMAIA TXINTXURRETA** | ESKORIATZA  
Udal ondasunak erabiltzeagatik prezio publikoa eta Zerbitzu publikoak eskaintzeagatik tasa udal ordenantzak aspaldi onartu zituen Eskoriatzako Udalak, baina indarrean irailean ipini ditu. Hori horrela, Ibarraundi museoa eta Zubiaterko labea ikusi edo erabiltzeagatik ordaindu egin behar da dagoeneko.

## Sarreren prezioa

Helduek hiru euro ordaindu beharko dituzte; 7 eta 18 urte bitarteko gazteek eta 65 urtetik gorakoek, oster, 1,5 euro; eta 7 urtera bitarteko umeez, berriz, sarrera doan izango dute.

Bestelako hobariak ere izango dira: sei pertsona edo gehiagoko taldeek %20ko hobaria izango dute; Agenda 21 programa barruko bisitak doan izango dira eta 16 urtetik beherako herriko eskolako taldeak ere doan joan ahal izango dira. Herrikoak ez diren eskola taldeek, bestalde, %50eko hobaria izango dute.

## Aretoen erabilera

Aretoei erabilera publikoa emateagatik ez da ezer ordaindu beharko, hezkuntzaren eta kulturaren inguruko ekintzak eta irabazi asmorik gabeko erakundeek ekintzak direnean, behintzat. Erabilera pribatuagatik, ezkontza eta irabazi asmoa duten erakundeetako ekintzengatik, berriz, 100 euro ordaindu beharko dira.

## Bisitari asko abuztuan

Debagoieneko beste herri turistiko batzuek erakartzen duten turista kopurua ez erakarri arren,



Eskoriatzako Ibarraundi museoa. | GOIENA

## Gaur azken eguna argazkiak bidaltzeko

Ibarraundi museoa antolatutako argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea, bestalde, gaur, egubakoitza, amaitzen da. Partaide bakoitzak gehienez bi argazki aurkeztu ahal izango ditu eta argazkiok derrigorrez digitalizatuta aurkeztu beharko dira. Eta beharrezkoa da argazkiekin batera kontaktua, adina eta izenburua jartzea. Argazkiok eta informazioa helbide honetara bidali beharko dira: [ibarraundi@eskoriatz.net](mailto:ibarraundi@eskoriatz.net)-era. Jasotako argazkiekin erakusketa egingo dute Ibarraundin eta saridunak nortzuk diren urriaren 2an jakinaraziko dute.

bisitariak ibili dira abuztuan Ibarraundi museoa. Itarte familiar buruzko erakusketa izan da, eta, herrian familia ezaguna denez, etxeko bisitari ugari izan ditu Ibarraundik. Inguruko eta kanpoko jendearen bisitak ere

izan dituztela adierazi digu Ene-ritz Zubiak, Ibarraundi museoko teknikariak. Besteak beste, toki hauetako bisitariak izan dituzte abuztuan museoa: Bilbo, Donostia, Belfast, Normandia eta Aragoikoak.



Igor Ezpeleta zinegotzia. | IGOR EZPELETA

## Igor Ezpeleta zinegotzi da abuztuaren 1a ezker

Bilduko Leire Urtzelaik karguari uko egin ostean izendatu zuten Ezpeleta zinegotzi

**A.T.** | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak beste zinegotzi bat dauka abuztuaren 1a ezker: Igor Ezpeleta. Bilduko Leire Urtzelaik karguari uko egin zion, eta haren lekua hartu du Ezpeletak. Ofizialki abuztuaren 1ean hartu zuen zinegotzi jesarlekua Ezpeletak, udaletxean egin zen ezohiko osoko bilkuran.

## Urtzelaren ardurak

Leire Urtzelaik zituen ardurak hartu ditu: Kirol, Ingurumen, Turismo eta Komunikazio zinegotzi da. "Aspektu desberdin asko, baina Eskoriatza moduko herri txiki baten denetik egitea tokatzen da", esan zigun Ezpe-

letak. Alderdi asko izan arren, harendako ez dira guztiz berriak: "Bi esparru gertutik ezagutzen ditut: Kirola afizioagatik, eta lanagatik Komunikazioa; beste biak, Turismoa eta Ingurumena, interes pertsonalagatik izan daitekeenagatik ezagutzen ditut".

Leire Urtzelaren baldintza beretan izango da zinegotzi Ezpeleta: %20ko dedikazioa izango du eta iraileko osoko bilkuran Udalak onartutako soldata kobratuko du.

Igor Ezpeleta gehiengoz izendatu zuen udalbatzak, Ezker Batuko zinegotzi Juan Luis Merinoren aurkako botoarekin.

## Astelehenetik apunta daiteke omenaldirako

Erretiratuei omenaldia hilaren 30ean egingo zaie eta izena eman daiteke 10etik 21era bitartean

**A.T.** | ESKORIATZA

Urteroko ohiturari utsiz, 65 urtetik gorako herritarrei omenaldia egingo diete hilaren 30ean.

Izena emateko epea astelehenenean, hilak 10, zabalduko da eta hilaren 21era bitartean izango da aukera jaialdirako izena emateko.

Olazar erretiratuen bulegoan eman beharko da izena, eta, hain zuzen ere, omenaldira joan

nahi duenak sei euro ordaindu beharko ditu.

## Egitaraua

Urtero bezala, egun osoko jaia egingo da. Goizean, 11:00etatik aurrera salda egongo da bertaratutakoendako. Ondoren, 12:30ean meza izango da. Bazkaria 14:00etatik aurrera izango da, pilotalekuan, eta, horren ostean, dantzaldia eta opari banaketa egongo da.

## Astelehenera arte daude jendaurrean ikusgai urriko hauteskundeetarako hautesle-zerrendak

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak urriaren 21ean izango dira, eta horietan botoa emateko eskubidea duten Eskoriatzako herritarren zerrenda ikusgai dago dagoeneko, aztertu eta erreklamazioak aurkezteko. Astelehenenean ipini zuten jendaurrean informazioa eta astebetean izango da ikusgai, hilaren 10era arte. Informazio gehiago jaso nahi duenak udaletxeko arreta zerbitzura dei dezake (943 71 44 07), edo [udala@eskoriatz.net](mailto:udala@eskoriatz.net) helbidera idatz dezake.

## TXALOAK ETA TXISTUAK



JOSEBA GABILONDO

## Zikinkeria handia Atxorrotzen



Abuztuaren 31n ateratako argazkia da goian ikusgai daukazuena. Atxorrotz zabor eta zikinkeriaz beteta agertu zen, eta Eskoriatzako herritarrek salatu dute "kontzientzia falta" eta "naturarekiko errespetu falta" erakutsi duela hori egin duen herritarra edo herritar taldeak. Beraz, "lotsagatik, behintzat, ea kontzientzia pixka bat pitzen zaion", salatu du herritar batek. Zaborra edozein lekutan botata ez uztea ere eskatu du.



# Bosgarren Ixadebalde azoka egingo du Aretxartek bihar

Mitarte kalean izango da, trikitilariak, jolasek eta doinu mexikarrek girotuta

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Eskaintza bikainak eskuartearen dituztela dator V. Ixadebalde azoka. Aretxarte merkatarien elkarteak antolatuta postuekin beteko da bihar Mitarte kalea, eta egun osoan izango dira bertan (09:30-20:00) –eguraldi txarra eginez gero, Iturrigorri pilotalekuan.

## Guztira, 16 postu

Goiz partean trikitilariak egingo diete lagun erosleei, eta 11:00etan hasita jolasak izango dituzte umeei; baita puzgarriak ere. Arratsaldean, oster, Bixentak taldeak doinu mexikarrekin girotuko du azoka.

Hori horrela, orain arteko merkealdien azokarik borobilena izango dela iragarri dute Aretxarteko kideak. Izan ere, ordu-tegia luzatu eta goizago zabalduko dute azoka, 09:30ean;



Herriarrak Mitarte kalean jarritako Ixadebalde azokan. | M.A.

girotzeko, ekitaldi eta sari gehiago iragarri dituzte; eta postu mordoia izango dira: 16 guztira. Hona hemen elkartuko direnak: Martin oinetakoak; Zubia; Zare; Haurrak; Kilima; Asensio; Belar Meta; Titare; Amaia; M5; Txilarrak; Kioskoa; Gertu; Brasileña; eta Aretxabaleta Kirol Elkartearen

postua –2012-2013 denboraldiko bazkide txartelak banatuko dituzte bertan–. Eta herriko hiru tabernaren artean, Orly, Akorde eta Eguzki, postu bakarra jarriko dute edatekoa eskaintzeko.

Gainera, azoka itxi aurretik (19:30) bi sari berezi zozketatuko dituzte bezeroen artean.

# Tarragonako antzerki azokara Udaleko ordezkari bat joan da, alkatea buru dela

M.A. | ARETXABALETA

Atzo hasi eta domekara bitartean Tarragan (Tarragona) ospatuko den antzerki azokara joan dira gaur Ana Bolinaga –alkatea–, Inma Miguel –Kultura teknikaria– eta Iurgi Etxebarria –aktore aretxabaletarra–. Haien asmoa da antzerki munduko eskaintzen berri izatea.

## Zirku astea antolatzea

Azaroan bukatuko zaio kontratua Arkupe kudeatzen duen Amalur enpresari, eta gero,

Udalak bere gain hartuko du haren ardura. Hala, antzerki-gintzako azken nobedadeen berri izatera joan dira Tarragara. "Antzezlanak ikusiko ditugu, barrukoak zein kalekoak, gero erabakitze gure diru-txoarekin zer egin", jakinarazi du alkatea joan aurretik. Eta aurreratu du asmoa dela zirku astea antolatzen hasia: "Zirkuak adin tarte zabala hartzen du, ume, gazte eta heldu, eta Andraimaxetan argi geratu da herri-tarrek oso gustuko dutela".

# Kurtzebarri mendiko eguna ospatuko du Murruxiko mendizale elkarteak domekan

Etzi, iraileko bigarren domeka, Kurtzebarri eguna ospatuko du Murruxiko mendizale elkarteak Aretxabaletako mendi ezagunean. Herriarrei hara jotzeko dei egin diete, eta ohiko egitaraua antolatuko dute: salda mendi tontorrean (10:30); meza (11:00); eta ondoren mokadutxoa (11:30), txorizo muturtxo eta xanpainarekin. Eta Kurtzebarritik bueltan (13:00) bermuta eskainiko dute Mendiola auzoan. Antolatzaileek iragarri dute eguraldi txarra eginez gero aldaketak egin ditzaketela egitarauan.

# Agorreko Andramaixak ospatuko dituzte Areantza auzoan gaur hasita

M.A. | ARETXABALETA

Gaur hasi eta domekara bitartean Agorreko Andramaixak ospatuko dituzte Areantza auzoan. Urtero legez, jai dotoreak gertatu dituzte, ilusio handiarekin.

Tantania jaso eta Martin Kabarrixa Areantzako pertsonaia ezagunari ongietorria eginda hasiko dituzte jaiok gaur (20:00). Martin Kabarrixa, gainera, bertututa datorrela iragarri dute. Ondoren, auzo afaria izango dute eta afalostea Iñigo musikariak girotuko die.

Bihar txistulariak iratzarriko dituzte auzotarrak, eta 12:00etan meza izango dute Basotxoko kantu-taldeak lagunduta. Ondoren mokadutxoa eskainiko dute eta gero Uxerriko koplak abestuko dituzte Aretxabaletako bertso eskolakoekin (13:15). Eta bazkaldu aurretik 27. jinkana jolasa egingo dute (13:45).

Arratsaldea Areantzako jolasekin hasiko dute (17:30) eta

## Mendiolarren aurkako partidua

Jaietako berrikuntza handiena Mendiolarren aurka jokatu duten partidua da, eta ilusio handiarekin dabilta gertatzen. Orain dela 60 bat urte jokatu zuten azkenengoz, eta hori berreskuratzeko pentsatu dute. Zazpi jokalariko taldeak osatuko dituzte –gura beste aldaketa egiteko aukerarekin–, eta ordubeteko partidua jokatu. Irabazleak garai kurra jasoko du, baina guztiek izango dute oroigarria.



Areantzarren eta mendiolarren artean jokatu duten partidua. | HIGINIO ETXABE

**CHIKUNG - TAICHI**

**Psicoenergetika ikastaroak**

- Asteko ikastaroak irailaren 15an hasita dira.
- Adinaren arabera talde banatuak
- Beraketo asiak

**ATE IREROKA:** Irailaren 15an, 19:00etan.  
Zona Oinezkoen saria, Zona Hitzak saria!

**bizitzg**

Bizitzg: Bizi-Ontziletako  
Auzoan 25, Iratze - Aretxabaleta  
943 72 01 35 - 943 25 29 83  
bizitzg@izurza.com

**Fotokopiatuak = Kondemnatuzak**

**Fax zertifikatua = Bulegorako eta eskolarako materiala**

**Argazki inprimatze zertifikatua**

Berrikartz 24, Luzama merkataritza zentroa, Aretxabaleta  
TEL: / Fax: 943 77 07 82 • bizitzg@izurza.com

**Nagusion hizkuntza ohiturak jasotzen dituzte gure seme-alabek.**

**eredu izan EUSKARAZ plazera delako!**

Aretxabaletako Udala  
EUSKARA SAILA

# Sahararik eta Ukrainatik Aramaiora, arrastoa utzita

Oporrak Bakean eta Txernobilen Lagunak elkarteei esker hiru ume etorri dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Euren jaioterria utzi eta Aramaiora etorri ziren ekain amaieran Saharako Dhaidum eta Nafisa eta Ukrainako Nadya.

Bi hilabetez euren herrietan bizi duten egoera zaila ahaztu eta udaz gozatzera etorri ziren gurera, ekain amaieratik abuztu amaierara. Oporrak Bakean elkarteari esker etorri ziren Dhaidum eta Nafisa. Udalak, programa horren barruan dagoenez, bien bidaiak ordaindu zuen eta baita eskolako materiala oparitu ere. "Oso pozik" dago Udala, aurten hiru familia –iaz bakarria izan zen– animatu direlako: "Eskerrik beroenak eman gura dizkiegu hiru familiei, espero dugu datorren urtean ere animatzea".

## Dhaidumen azken urtea

Dhaidumek hirugarren uda pasa du Aramaion, Muru auzoko nekazal turismoaren jabe diren Mario Serrato eta Paki Gilekin batera: "Etxean moduan ibili da, alde batetik bestera. Integratzeko arazorik ez du izan: zaldiek ibili, baseritarrekin harremana egin... ederto ibili da", dio Serratok. Gainera, euskaraz egiten ere ahaleginu dela dio Serratok.

Lastima aurtengoa izan dela azkena: 12 urte bete dituzenez, datorren urtean ez du etortzerik izango: "Bi hilabetez gure artean izan ostean agurtzea beti da gogorra baina aurten are gogorragoa izan da", adierazi du.



Nafisa –erdian– Yolanda Sillero eta Iñaki Larrañagaren alabekin. | I. LARRAÑAGA

**Nafisa lehenengoz, eta ederto** Nafisa, berriz, lehenengoz izan da Aramaion. Yolanda Sillero eta Iñaki Larrañagaren etxean izan da, Gureian: "Betidanik izan dugu laguntzeko irrika hori eta aurten aukera baliatzea erabaki dugu.

Gure alabekin irteten zen eta beraz, ez zuen arazorik izan integratzeko. Gure alabak ere pozik, lagun berria egin dutelako", esan digu Larrañagak. Abuztuaren 25ean egin zuen Nafisak bueltako bidaiak: "Agurra oso gogorra izan zen, oso maitekorra da-eta. Datorren urtean berriro ere ekarriko dugu, gauzak ez badira gehiegi aldatzen behintzat". Azkenik, beste familia batzuei gomendatzeko esperientzia dela uste du Larrañagak.

**Nadya, Txernobildik Azkoagara** Txernobilen Lagunak elkarteari esker, bestalde, Ukrainako Nadya izeneko 12 urteko neska Azkoaga auzoan izan da Mirari Korta eta Etor Arregiren familiarekin. Lehen aldia izan da euren aldia eta "oso esperientzia aberasgarria" izan da, Mirarik dioenez: "Zorte handia izan dugu. Badakigu esperientzia guztiak ez direla onak izaten baina gure kasuan ez dugu kexarik". Integratzeko ez du arazorik izan: "Auzoko zein herriko jaietan, udalekuan... gure alabarekin batera irteten zen eta oso gustura ikusi dugu".

Horren seinale da datorren urtean errepikatzen geratu direla: "Nadyak bueltatzeko gogoia zuela esan zigun eta gu ere gertu gaude ekartzeko. Beraz, okerrik ez, hemen izango da datorren udan". Agurra, gogorra: "Txernobilerak bueltatzeko 200 haur baino gehiago elkartu ziren aireportuan. Negarrak, barreak eta denetarik emozioak izan ziren nagusi", adierazi du Kortak.



Reckon taldea, ezkerretik eskuinera, Jungitu anaiak eta Sonia Vera. | GOIENA

## Reckon taldearen blues, country eta pop doinuak gaur Sastiñan

J.B. | ARAMAIO

Iraila amaitu arte, egubakoitzero zuzeneko musika izango da protagonista Sastiñan, Udaleko Kultura Sailaren eskutik. Kontzertu zikloa Gasteizko Reckon taldeak irekiko du, gaur, 20:00etan. Blues, country eta pop doinuak ditu oinarri Josu Jungitu, Alfonso Jungitu eta Sonia Verak osatzen duen hirukoteak: "Duela pare bat urte sortu zen taldea, modu akustikoan eta formatu txikian hainbat kontzertu emateko asmoz", adierazi digu Josu Jungituk. Josuk erritmo-kaxa eta gitarra jotzeaz gain abestu ere egiten du; haren anaia Alfonsok gita-

rra jotzen du eta Sonia Vera da, azkenik, taldeko abeslari nagusia. Eskarmenturik ez zaie falta, ia bizitza osoa daramate-eta musika munduan.

Bertsioak izango dira nagusi gaurko emanaldian: Eric Clapton, James Taylor, The Eagles, Stevie Wonder eta AC/DC taldeen kantuek joko dituzte, besteak beste. Ordu eta laurden iraungo du emanaldiak.

## Hiru emanaldi gehiago

Beste hiru egubakoitz falta dira: hilaren 14an, Papargorri abesbatza; 21ean, Cool Fool eta 28an, Astearte. Hiru kontzertu horiek 19:30ean hasiko dira.

## Bizilagunen eskaeren ostean autoak Herriko Plazara sartu ahal izango dira, baina aste barruan bakarrik

Aurrerantzean Herriko Plazarako sarrera itxita egongo da aste bukaeretan –egubakoitz eguerditik astelehen goizera–, jaietan, Gabonetan, udalekuan eta ekintza bereziak dauden aldietan. Urtean zehar plaza "mugimendu handiko gunea" denez, oinezkoen lehentasuna emateko ibilgailuen zirkulazioa Ibargoia kaletik bideratzea erabaki du Udalak. Beraz, aste barruan sarrera zabalik egongo da, baina Udalak gogorra ekarri du aparkatzea debekatuta dagoela eta zirkulazio arauak bete behar direla.



Aste bukaeretan bakarrik egongo da itxita plazarako sarrera. | J. BEREZIARTUA

## Borondatezko epea zabalik kontribuzioa ordaintzeko

2012ko ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik dago urriaren 27ra arte. Bankuan helbideratuta dauden erreziboak urriaren 22an kobratuko dira eta gainerakoek Udalaren kontuetan egin beharko dute ordaintzea. Epez kanpokoak %5eko gainkargaz kobratuko dira.

## OHARRAK

### KIROLDEGIKO KANTXAREN ALOKAIRUA

Denboraldi berriko egutegia zehazteko Udalak dei egin die herriko talde eta norbanakoei eskaera egiteko. Urte osorako erreserba egin gura dutenek udaletxera jo beharko dute irailaren 14a baino lehen.

### ODOLA EMATEA

Irailaren 12an da hitzordua, osasun etxean (16:30-20:00).



Dhaidum –erdian– Mario Serrato eta Paki Gilekin. | MARIO SERRATO



Nadya –ezkerrean– Mirari Korta eta Etor Arregiren seme-alabekin. | M. KORTA

## ELGETA

# Zabalik dago ikasturte berriko jardueretan izena emateko epea

Tai txi eskolak hasita daude; gainerako zazpi kirol jarduerak urrian hasiko dira

LARRAIZ ZEBERIO | ELGETA

Zortzi jarduerak osatzen dute 2012-2013 ikasturte hasiera honetan Elgetako kirol eskaintza. Ez da nobedade esanguratsurik; izan ere, iazko eskaintza mantendu du Udalak.

Helduendako spinning, tai txi, yoga eta mantentze-GAP jarduerak daude aukeran. Erretiratuendako, berriz, mantendu egiten dira gimnasia saioak. Haurrek ere iazko eskaintza bera dute: multikirola —bi talde—, eta karatea —egun aldaketarekin—. Aurten, hori bai, gaztetxoek faltan sumatuko dituzte pilota eskolako saioak.

Ikasturte honetan, bestalde, spinningeko talde bakarra egongo da. Lehenetsuna izango dute aurreko ikasturtea amaitu zuten erabiltzaileek baldin eta izena irailaren 17a, astelehena, baino lehen ematen badute.

## 2012-2013 IKASTURTEKO ESKAINTZA

JARDUERA	EGUNAK	PREZIOA
<b>Yoga</b>	astelehen-eguztzen, 19:00etan	35 euro hileko
<b>Tai txi</b>	martitzen-eguen, 19:30ean	35 euro hileko
<b>Erretiratuendako gimnasia</b>	martitzenetan, 15:30ean	5 euro hileko
<b>Mantentze-GAP</b>	martitzen-eguen, 18:30ean	25 euro hileko
<b>Spinninga</b>	martitzen-eguen, 19:30ean	25 euro hileko
<b>Multikirola (8-9 urte)</b>	martitzen-eguen, 16:30ean	50 euro ikasturte osoa
<b>Multikirola (10-11 urte)</b>	martitzen-eguen, 17:30ean	50 euro ikasturte osoa
<b>Karatea</b>	astelehen-bariku, 16:15ean	20 euro hileko

### Hilabete bateko kuota

Udalak zabalik du dagoeneko jarduerak guztietan izena emateko epea. Iaz bezala, izena ematearekin batera hilabete bateko kuota ordaindu beharko da. Ikasturtean

zehar jarduerak lagatzen dutenek galdu egingo dute kuota hori; aldiz, ikasturtea amaitzen dutenei ez zaie ekaineko kuotarik kobratuko. Informazio gehiago udaletxean emango dute.

## Haurrendako biodantza saioak eskainiko dituzte

5-12 urte bitarteko umeendako izango dira



Ana Mari Sousa eta Mentxu Arjonilla biodantza irakasleak. | L.Z.

L.Z. | ELGETA

Ana Mari Sousak eta Mentxu Arjonillak haurren kreatibitatea eta afektibitatea landuko dituen eskolaz kanpoko jarduerak berria proposatzen dute ikasturte honetarako. "Emozioak ezagutzen eta adierazten ikasiko dugu mugimenduaren eta elkarrekintzaren bitartez", adierazi dute. "Norbera eta ingurukoak zaintzen ere ikasiko dugu". Haur bakoitzaren gaitasunak integratzen, eta izaera naturala erakusten lagunduko dute biodantza saioek; azken finean, autoestimoa lantzen.

Ikastaroa urriaren 4an hasiko dute eta saioak egunetan egingo dituzte Herri Eskolako ganbaran. Bi talde osatu gura dituzte: 5-7 urte bitarteko umeekin 17:00etatik 18:00etara egingo dute biodantza eta 8-11 urte bitarteko haurrekin 18:00etatik 19:00etara. Hileko kuota 25 euro da. Interesatuak Udal Liburutegian eman behar dute izena.

Jardueraren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero 626 66 12 92 edo 606 63 61 99 telefono zenbakira dei dezakezue.

## LEINTZ GATZAGA

## San Milixanetanezko azokan parte hartzeko izenematea zabalik dago

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Azaroaren 11n ospatuko dituzte San Milixan jaiak gatzagarrek, eta Udala dagoeneko hasi da gertatze lanetan. Azokan parte hartu gura duten artisauek eskaera egin behar dute aurrez, eta izen-emate epea dagoeneko zabalik daukate. Udaletxera bideratu behar dira horiek, urriaren 8rako.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan edo Iparraldean bizi diren artisauek parte har dezakete azokan, eta baldintza bi bete behar dituzte: derrigorrez erakusgai jarritako produktuen egilea izatea eta azokan bertan langintzaren erakustaldia egitea. Eskaera orriarekin batera beste agiri batzuk ere aurkeztu behar-

ko dituzte; tartean, artisauen erregistroan alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, jarduerak ekonomikoaren ziurtagiria eta curriculumak.

Bestalde, tailerrak egiteko eskaera epea ere zabalik dago. Tailer horiek pilotaleku alboko lokalean jarriko dituzte azokak iraun bitartean, eta ume, gazte zein helduei zuzendutako jarduerak egin. Artisau hauek 150 euroko dieta jasoko dute ordainetan eta azokan parte hartuko dutenek 50 eurokoa.

## Hautesle-errola erakusgai dute udaletxean, eta irailaren 10era bitartean kontsulta daiteke

Urriaren 21ean egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara Udalak jakinarazten du ikusgai dagoela Elgetako hautesle-errola. Irailaren 10era arte —egun hori barne— egongo da ikusgai. Interesa duten herritarrek udaletxeko harreraren galdetu behar diote Juan Ramon Irazabali. Errola aztertu eta erreklamazioak aurkezteko aukera ere izango dute.

## Irailaren 19ko irteeran parte hartu nahi duten erretiratuek bihar edo etzi eman behar dute izena

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak Nafarroako Baztan bailarara irteera antolatuta du. Txangoa hilaren 19an, eguztina, egingo dute eta egun osoa izango da. Asmoa da Elizondo ezagutu eta bazkaria Baztan Hotelean egitea. Interesatuak bihar, zapatua, eta etzi, domeka, eman behar dute izena. Xalbadorpeko ardura-dunak Ozkarbi elkartearen izango dira bi egunotan, 11:00etatik 12:30era. Prezioa 28 euro da.

## Herriko baseritarrek zabalik dute hilaren 22an egingo den azokan izena emateko epea

Sagardo Egunarekin batera egingo dute, aurten ere, herriko baseritarren azoka, eta postua ipintzeko interesa duten baseritarrek hilaren 14ra bitartean eman behar dute izena udaletxean. Azoka 11:00etatik 13:00etara egingo dute, Herriko Plazan, eta Udalak dozena bat postura iristea aurreikusten du. Animatzen diren baseritarrek Espaloia kafe antzokian egiteko bazkari bat izango dute opari; postu bakoitzeko bazkari bat.



L.Z.

## Atzo, eskolara itzultzeko eguna

101 ikasleekin hasi zuten atzo, eguna, 2012-2013 ikasturtea Elgetako herri eskolan. Ikastetxeak zazpi unitate izango ditu aurten, eta irakasleak iaz baino 1,5 gutxiago. Haurreskolan ere atzo hasi zuten ikasturtea. Erabiltzaileak zazpi dira. Udalak jakinarazi du, bestalde, hilaren 14ra arte dagoela zabalik zaintza zerbitzuan izena emateko epea. Oraingoan, hiru lagunek eman dute izena.

## Ikasturte berria hasiko dute KZgunean astelehenean

Udako oporren ostean eta jaiak bukatu eta gero, astelehenean, hilak 10, zabalduko ditu ateak KZguneak (16:00-20:00). Aitor Madrid dinamizatzailea izango da bertan, eta ohiko ikastaroak eskaini eta herritarren zalantzak argituko ditu. Argibideak gura dituenak bertara jo dezala, edo telefonoz deitu: 943 02 36 65.

## Udalak onartutako azken mozioak ikusgai daude webgunean

Uztailean egindako azken osoko bilkuran bost mozio onartu zituen udalbatzak, tartean 1512-2012 Nafarroa Bizirik aldarrikapenaren eta hondakinen kudeaketaren gainekoak. Mizio horiek zer dioten jakin gura duenak Udalaren webgunean —[www.leintzgatzaga.com](http://www.leintzgatzaga.com)— ditu eskuragarri.

TXIRRINDULARITZA

# Vuelta barrutik bizitzen dabilzanak, azken etapa erabakigarrien atarian

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE  
Iban Velasco eta Markel Irizar Espainiako Itzulia korritzen dabil-tza. Oraindik asteburu gogorra

dute aurretik, besteak beste, bihar Madrilgo mendizerran dagoen Bola del Mundoko etaparekin. Eguazteneko etaparen ostean izan

ginen debagoiendarrekin, Contadorrek lasterketa lehertu zuen egunean. Ahotsean igartzen zitzaizen etaparen gogortasuna.

**IBAN VELASCO** | EUSKALTEL-EUSKADI

## "Zapatuko etapa oso gogorra izango da"

Taldekieendako lanean, aldapa gora oso maila ona erakusten dabil Iban Velasco arrasatearra. Pena, liderrak ez daudela bestetan bezain indartsu.

### Zer moduz Vueltan?

Egia esan, ondo sentitzen ari naiz, taldekideendako lanean. Pena da Igor Anton ez dagoela beste urte batzuetan bezain indartsu. Verdu-gorendako ari naiz lanean, batez ere, oso ondo dabil.

### Bazen garaia hiru asteko itzuli baten ondo sentitu eta erorketak eta halakoak ez izatea albiste.

Bazen garaia, bai, dagoeneko erorketa kontuak ahaz-tuta ditut.

### Esperozenuten Contadorren eguazteneko erreakzioa?

Egia esan, ez, sorpre-sa izan da. Erasoak

azken mendatean espero genituen, baina etapa izugarri gogorra izan da. Telebistaz ikusteko ederra izango zen, baina barrutik bizi izatea ere polita izan da.

### Momentu gogoangarri bat Vueltan?

Ez dut bat azpimarratzeko, mendiko etapa guztietan sentitu naiz ondo. Akaso, Cuitu Negrokoa izan zen ikusgarria.

### Kritikak ere egon dira, malda gogorregiak ez ote dituzten sartu...

Bueno, momentu konkretuetan izan dira, eta laburrak. Uste dut

telebistan ikusgarri geratzen direla, eta hori ere garrantzitsua da.

### Badago ezustera-ko tarterik?

Ikusiko dugu...



Zapatukoa oso-oso etapa gogorra izango da.

### Zela ikusten duzu ondoko laguna [Irizar]?

Oso ondo. Bere lana oso ondo egiten du, taldearendako lan handia egiten du, eta izugarri maite dute horregatik.

### Vuelta amaitu ostean, zer?

Ez da segurua, baina Lonbardiako Itzulia egingo dut, seguruenik, eta ondoren Txinara joango gara denboraldia amaitzera.

**MARKEL IRIZAR** | RADIOSHACK NISSAN TREK

## "Ibilbidearekin asmatu egin dute"

Oñatikoaren taldea lider garbi barik joan da Vueltara, eta, taldekako erlojupekoan esperantza handiak bazituzten ere, gauzak ez zitzaizkien nahi moduan atera.

### Zer moduz Vueltan?

Bueno, super ez. Iruñeko taldekako erlojupekoa ondo egin nahi genuen, eta trabatu egin zitzaigun. Gero, etapak irabazteko aukerakin izan gara, hortxe-hortxe, baina ez dugu errematatu. Nik, aldiz, ez dut aukera handirik izan. 10 etapa mendateetan amaitzen badira, eta beste 7 esprintean... ni bezalako ziklistendako ez da aukera askorik geratzen.

### Espero zenuten Contadorren eguazteneko erreakzioa?

Ez, eta entzun dudanez berak ere ez zuen aurreikusita. Paulinhoren laguntza izan du, eta tipo hori maki-hutsa da lanerako.


### Egongo da ezusterik?

Ez dut uste, bi minutuko abantaila eskuratu du. Oso egun txarra izan beharko luke Contadorrek.

### Malda gogorregiak egon direla diote batzuek.

Nire ustez, asmatu egin dute, eta

Vuelta hiru itzuli handietako ikusgarriena izaten ari da. Maldagogorakegon dira, bai, Cuitu Negron Holandako txapelduna oinez



ikusi nuen (Terpstra)... Baina azken urteotan ziklismoak albiste txar asko eman ditu, eta zaleak berreskuratu behar ditugu. Zaleek hau eskatzen badute, aurrera.

### Zela ikusten duzu ondoko laguna [Velasco]?

Oso ondo. Hark zarata gutxi ateratzen du, errepidean eta errepidetik kanpo, baina oso lan ona egiten dabil. Euskalteko ziklistak, baina, urduri ikusten ditut. Asko daude datorren urtean non egongo diren jakin barik, eta horrek ez du laguntzen.

### Vuelta ostean zer?

Agian, Munduko Erlojupeko Txapelketan izango naiz. Unai [semea] jaioko da laster, eta etxean lasai egoteko esan didate.

## "Vuelta ostean Unai jaioko da, eta taldean lasai egoteko esan didate"

# MBA

## executive

## Enpresen Zuzendaritzako Masterra 2012/2013

Ostalarako MBA Executive gaitzen profesional eta pertsonalari beste buitzada bat eman nahi duten zuzendaritza bereziki zuzendutako programa da.

Programak, bera diseinuarri baino, uztartu egiten ditu enpleguaren funtzioen ikuspegi bereziki eta integratuz eta enpresa proiektu bideratzeko behar dituen irabazimendu gaitzera.

Ostalarako MBA Executive programaren edukiek modu honetan multzoak dira:

- ENPLUGAREN FUNTZIO OROKORRAK
- Modu integratuz eta enpresa erakundearen aztertzea.
- ZUZENDARITZA TREBATIMENDUEN GARAPENA
- MASTER AMAIERAKO PROIEKTUA



## Informazioa eta izen-ematea

### ONARPENERAKO BALDINTZAK:

- Unibertsitateko titulazioa
- Gubernetik 5 urteko esperientzia profesionala

### INFORMAZIO OSAGARRIA ESKATZEKO ETA ESKAERAK BIDALTZEKO

Marian Uribarren

OTALORA

Azcarreta suzoa 2 - 20550 Arebaloa

Tel.: 943 71 23 30

[muribarren@mondragoncorporation.com](mailto:muribarren@mondragoncorporation.com)

## Egutegia

### HASIERA

2012ko urriaren 15an

### ESKOLALDIAREN AMAIERA

2013ko uztailaren 5an

### AMAIERAKO PROIEKTUAREN AURKEZPENA

2013ko azaroa

### ORDUTEGIA

Ostalaran: 09:00etatik 18:00etara

Larunbatan: 09:00etatik 13:00etara

### ESKOLA LEKUA

OTALORA

Azcarreta suzoa 2

20550 Arebaloa

Tel.: 943 71 23 30

## FUTBOLA

## Arrasate Hiria batuko ditu Bergara, Aloña, Aretxabaleta eta Mondra asteburuan

Mondrako neskek ligako lehenengo partidua jokatuko dute San Inazio talde bizkaitarraren kontra: domekan izango da lehia, Mojategin, 12:00etan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Liga hasi aurreko azken azterketa geratzen zaie Ohorezko erregional mailako Aloñari, Mondrari, Bergarari eta Mondrari. Joan den astean Bergara Hiria jokatuko ostean, asteburuan guztiak ikusi ahal izango ditugu batera, Arrasate Hiria torneoan.

Zapatuan finalerdiak jokatuko dituzte: 16:15ean jokatuko dute Aloña eta Aretxabaleta, eta 18:00etan Mondrak eta Bergarak. Eta, ordezkari onenak domekako finalera sailkatuko dira (16:30). Hala, nahiz eta klubaren egoera ekonomikoa onena ez den, partiduoak ikustearren ikusleek ez dute sarrerarik ordaindu behar izango.

### Mondrako neskek ligan

Mondrako neskek tarte txikia izan dute denboraldia behar den moduan prestatzeko -joan den astean 1-4 irabazi zioten Oiartzuni. Oraingo asteburuan bertan hasiko dute liga (domeka, 12:00, Mojategi) Bizkaiko San Inazioaren kontra. Arrasateko neskek denboraldi ona egin zuten iaz, kategoria berria ez zitzaizen handi geratu eta larre-



Mondrako eta UDAko jokalariek, joan den astean, Bergara Hirian. | JULIO CALLEJA

gi sufritu barik lortu zuten mailari eustea.

Aurten ere lan txukuna egiteko moduko taldea dute, eta urtebeteko esperientzia bigarren mailan. Baina, egia da taldeak baja garrantzitsuak izan dituela,

Araitz Etxabek (Oiartzunen jokatuko du), Maitane Roak eta Izaskun Usabiagak taldea utzi dutelako. Euren orde, berriz, Alaitz Seoane, Naiara Lete, Maider Martinez-Alcocer eta Sherezade Moreno izango dira taldean.

## PIRAGUISMOA

### Patxi Ugalde gaur saiatuko da Europako piraguismo Txapelketako finalerako sailkatzen

Gaur, egubakoitza, lehiatuko da Patxi Ugalde Europako Txapelketan, Eslovenian. Bergarakoak taldekako lehia izango du, *patrulla* izeneko modalitatean, eta biharko finalerako sailkatzea du helburu. Mundu mailako txapelketetan parte hartu duen piraguis-tak Eslovenian egongo den maila handia azpimarratu du.

## ARETO FUTBOLA

### Bergarako Labegarrietako areto futbol txapelketan jokatuko ahal izateko izen-emate epea zabaldu dute

Irailaren 22an hasiko dute txapelketa, eta hilaren 14a da izena emateko azken eguna. Hala, irailaren 17rako antolatzaileek batzarra deitu dute (Kultura Etxea, 19:00). Izena emateko Euskadiko Kutxako 3035 0009 12 0090033922 kontuan 200 euro sartu beharko dira, eta izenekin eta NA zenbakiekin mezua bidali ([pzafra@euskalnet.net](mailto:pzafra@euskalnet.net)).

## MENDIKO BIZIKLETA

### Gatzagako mendi bizikleta martxa egingo dute domekan, herriko jaien barruan

Joan den astean Aretxabaletan motorrak berotu ostean, oraingo asteburuan Gatzagak hartuko du errelebeoa. Hala, domekan 09:30ean hasita egingo dute Gatzagako martxa. Antolatzaileak 08:30etik egongo dira izenak hartzen, eta, urtero moduan, jatekoak eta edatekoak emango dituzte ibilbidean zehar.

## TXIRRINDULARITZA

### Gazte mailako ziklistak Mikel Deuna Sarian lehiatuko dira bihar Oñatin, Mendiko Kriteriumean

Txirrindulari gazteak Mikel Deuna Sarian lehiatuko dira zapatuan (10:30) Oñatin. Plazatik irtengo dira, eta txirrindulariek 87 kilometro izango dituzte aurretik. Hala, Bergaratik joan-etorri bat egin ostean Oñatira itzuli, Udana igo eta Gabiria aldera egingo dute. 12:45 inguruan iritsiko dira helmugara, Oñatin.

Lanerako gertu!

2012  
2013

GOI MAILAKO  
HEZIKETA  
ZIKLOAK

Matrikula  
zabalik



MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa  
-Ordenagailu eramangarri bat zure esku
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak




[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)  
 943 71 21 91

# IRAILAREN 29AN GORBEIAREN ESKUTIK

## DONOSTIAKO ZINEMALDIAREN 60. EDIZIOA

BI LAGUNENTZAKO BAZKARIA

**AKELARRE JATETXEAN**

BI SARRERA AMAIERAKO GALARAKO

ETA EGONALDI BAT **LONDRES HOTELEAN**

EGIZU GUTXIENEZ 20 EUROKO EROSKETA BAT ETA  
PARTE HAR EZAZU HONAKO WEBGUNE HONETAN:

**CENTROCOMERCIALGORBEIA.COM**



**GORBEIA**  
10 URTE **AURREZTEN**



60

DONOSTIA ZINEMALDIA  
FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN  
INTERNACIONAL DE CINE

Promozioak 2012ko irailaren 20ra  
arte iraungo du

Oinarri osoak:  
[www.centrocomercialgorbeia.com](http://www.centrocomercialgorbeia.com)

# KULTURA

**Aitor Mantxola** | Argazki zuzendaria

## "Uste dut inoiz egon den momenturik okerreanean gaudela orain zinemaren industriako langileak"

Zinemaz gain, antzerkiak, telebista saioek eta iragarkiek ere igarri dituzte BEZaren ondorioak

MAIDER ARREGI | OÑATI

Aitor Mantxola oñatiarra argazki zuzendaria da. Makina bat film eta iragarki egin du; eta orain, *El Gran Hotel* teleaio arrakastatsuen bigarren denboraldiaren grabazioa bukatu berri du Santanderren. BEZaren igoera dela-eta kulturari eta bereziki zinema industriari nola eragin dion jakin gura izan dugu Aitor Mantxola zinema industriako langilearen eskutik.

**Nola eragin du BEZaren igoerak kulturari?**

Uste dut ikuskizunetan eragin duela gehien. Zinema asko itxi egingo direla esaten ari dira. Ez bakarrik zinemak, baita antzerki aretoak ere; ezinezkoa da egoera honekin aurrera egitea. Pelikulei dagokienez, okerrago ezin da egon egoera. Filmak egiteko dirulaguntzak kentzeaz gain, telebistako salmenta bultzatzeko laguntzak ere kendu dituzte. Uste dut orain egon den momenturik okerreanean gaudela.

**Jendea lan barik geratuko da?**

Jende asko dagoeneko lan barik dago. Ni, zorionez, oraingoz lanean ari naiz, pozik egoteko modukoa da. Industria bat dago, baina ez du industria moduan funtzionatzen. Kultura arlotik bideratzen da eta guk askotan esan dugu legedia aldatu egin behar dela eta industria moduan jokatu behar dela. Erraza da, Frantziakoa hemen aplikatu besterik ez dute egin behar. Baina ez dute nahi.

**Zergatik?**

Ez dute nahi, zeren eta ikuskizun guztiak Ameriketako estudio handien esku baitaude. Jendea hauen aurka egiteko beldur da; izan ere, ez diote aurre egin



Aitor Mantxola oñatiarra argazki zuzendaritza lanetan. | AITOR MANTXOLA

**"Frantziak duen legea aplikatzea eskatzen dugu"**

nahi, zinema industria guztia mugitzen dutelako.

**Beraz, irtenbidea lege aldatzea da.** Bai. Frantzian, sarrera erostean, portzentaje bat Frantziako zine-

ma egitera dago bideratuta. Berdin da filma nongoa den, baina sarrerako zati bat Frantziako filmak bultzatzeko erabiltzen da, inbertsioa da. Oso ondo antolatuta dute eta hori izan beharko litzateke irtenbidea hemen ere. Legea aldatzea eskatzen dugu.

**Telebista saio gutxiago erosten dituzte kateak?**

Niri lan zehatzagatik egiten didate kontratua, eta ordaindu ere orduan ordaintzen didate. Baina

ekoizleak arriskatu egiten dira; izan ere, euren lana telebista kate batek etetea erabakitzen duenean, asko galtzen dute. Adibidez, teleaio baten dekoratu osoa muntatuta dago eta jendea kontratatuta lan hau egiteko, besteak beste. Beldurtuta daude ekoizle eta langile guztiak, zeren eta inbertsio handia egiten baitute guztia mantentzeko. Teleaioa ez badu telebista kateak emititzen, ekoizleak ez du kobratzen.

**Aurrera aterako ziren proiektu asko kaxoi barruan geratuko dira?**

Bai; gainera, orain, proiektu merkeak egiteko ideiak ere hasi dira nagusitzen. Jendea kanpora begira ere jarri da, Europara edo Ameriketara joatea, bere proiektuak aurrera ateratzeko eta bertan lan egiteko, alegia.

**Gizartea kontziente da egoera honen larritasunarekin?**

Nik uste dut ezetz. Jendeak uste du beti festa giroan, farandulan gaudela. Sari banaketa eta *glamour*-a ikusten dute zinema industriaren atzean. Baina ez dira ohartzen oso lan gogorra dela, ordu askoko lana dela. Askotan, hamar, hamaika edo hamaiki ordukoa, eta asteburuak barne. Grabazio gogor batetik bueltan, lo gutxi eginda hurrengo egunerako gidoia ere prest eduki behar da. Emaitza bakarrik ikusten dute ikusleek, eta ez atzena dagoen lan gogorra.

**Okerrera egingo duela uste duzu?**

Gaur BEZa da arazoa eta bihar beste murrizketa bat izango da; gero eta okerrerrantz goaz, eta ezin da onartu. Herritarrek ordaintzen ditugu gure zergak; besteak beste, Urteko Tasa Baliokidea, UTB delakoa (TAE).



*El Gran Hotel*. | ELECONOMISTA.ES

**Saio gutxi batzuek aurrera**

Abuztuaren 15ean *El Gran Hotel* teleaio arrakastatsuen bigarren denboraldia grabatu zuen Aitor Mantxolak Salamancan –tartean, aktore moduan Yon Gozalez bergararra eta Amaia Salamanca aktore ezagunekin–. "Orain baditut proiektu batzuk buruan, baina gauzatu eta konfirmatu arte ezin esan". Mexikon eta AEBetan lanean jardun du. Estatu Batuetan hiru pelikula independente egin ditu. Bereziki iragarkiak egiten jardun du, baita Thailandian ere. "Iragarki kanpainarako aurrekontua handiagoa da; jende gehiago dabil eta baliabideak ere gehiago dira. Baina iragarkien produkzioa asko jaitsi da .

R.P.S. Nº 140/10/11 G.

**1.000 modelotik gora**

**mō graduatuak**  
katalak barne

**57€**

Eskaintza hau baliagarria izango da 2012ko Abendura arte. Kontsulta itzazu optikan, kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da pilatu beste promozio batzuekin.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

**MULTIÓPTICAS**  
lehen a zerbitzu optikoetan



Def Con Dos taldea. | COVERALIA.COM

## Def Con Dos taldea XX. urteurrena ospatzera dator

MAIDER ARREGI | OÑATI

Def Con Dos 1990. urtean sortutako talde ezaguna dugu. Hip-hop eta rap-punk-metalean aitzindariak dira. Disko asko kaleratu eta gero, Europan eta Amerikan barrena bira egin zuten; eta, lau urteko geldialdiaren ondoren, *Recargando* diskoa kaleratu zuten 2004. urtean. Bost urte geroago, 2009. urtean, *Hipotecate tú* diskoa atera zuten.

Orain, berriz, XX. urteurrena ospatzen ari diren honetan, *La culpa de todo la tiene Def Con Dos* box defa kaleratu berri dute. Bertan, tributu-diskoa, liburu biografikoa, abesti bilduma eta DVD bat batu dituzte. Talde veteranoa

izan arren, izugarritzko freskotasuna eta energia duen taldea dugu Def Con Dos. Ez ahazteko moduko kontzertua eskainiko dute hilaren 15ean Oñatiko gaztelekuan, 22:30ean; sarrera 10 euro da.

### Kaimanleon

Aurretik, baina, Oñatiko stoner-rock talde berri baten diskoaren aurkezpen kontzertua izango da: Kaimanleon. Show Business eta Potemkin taldeetako partaidez osatutako taldea da. Ze taldetan ibilitakoak diren ikusita, esan beharrik ere ez dago kontzertu sutua eta intentsitate handikoa eskainiko dutela.

## Iker Azkoitiak krisiaren ondorioak jasoko dituen lana grabatuko du

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaleako zinemagile gazteak beste proiektu bat du esku artean. Oraingoan, krisiak osasun arloan duen eragin zuzena oinarri duen proiektuari helduko dio. Irailean grabazio lanei helduko diela kontatu digu. "Krisiak osasun arloan izango duen eragin lazarriak asko arduratzen nau. Diskurtso xenofoboa ematen ari dela uste dut, eta gizarteak erantzun egin behar du. Denon eskubide izan beharko lukeen osasuna kalteztzen dute krisiaren murrizketek. Hori jasoko duen proiektua egin gura dut". Hiru minutuko film laburra egingo du, eta ondoren Notodofilmfest Inter-



Iker Azkoitia. | IKER AZKOITIA

neteko film laburren X. jaialdian aurkeztu. "Urriko bigarren asterako bukatu nahi dut, eta ondoren *notodofilmfes.com* webgunean zintzilikatu". Hala, gehien ikusten den lanak eskuratuko du sari nagusia.

## Jabier Muguruzaren eta Mikel Azpiroz piano jotzailearen goxotasuna gaur Zariaian

M.A. | ARETXABALETA

Ekintzaz beteta dator Arkupe kultura etxea irailan. Gaur, adibidez, eskarmentu handiko bi musikariren zuzenekoak gozatzeko aukera dago: Jabier Muguruza eta Mikel Azpiroz pianoan, hain zuzen ere. Agertokian doinu xumeak baina sakonak, melodiaz beterikoak,

eskainiko dituzte. 22:00etan hasiko da; sarrera 4 euro da.

### Erakusketa

Pintura ikastaroko lanen erakusketa hilaren 30era arte dago ikusgai Arkupen: 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; zapatu goizean eta domekan itxita egongo da.

## Badator Koolturen hirugarren edizioa

M.A. | ARRASATE

Kooltur Ostegunen hirugarren kurtsoari Maritxu Kajoi bezperan emango zaio hasiera, urriaren 4an.

Horren aurretik, baina, programazio berezia antolatuko dute irailaren 21erako eta 22rako, Kooltur Asteburua izenpean, Kooltur Ekintzak eta Arrasateko Gaztetxeako Asanbladak (AGAKO) erabiltzen duten soinu-ekipoaren zorra ordaintzen laguntzeko. Hala, hilaren 21ean, Nuevo Catecismo Catolicoren eta Lobo Electricoren punk-rock gordinaren txanda izango da, 22:00etan.

Irailaren 22an, zapatuan, aldiz, Elorrioko Iheskide taldea gogotsu izango da berriro Arrasaten... *Irabazi arte!* diskoa aurkezten; rock matxi-noaren gerrillariak punk-rock errebelde gau bilakatuko dute zapatua. Haiekin batera Fiachras taldearen eskolan hazitakoa dirudien McOnak talde berria, Lekeitio ingurukoa, izango da. Punk-rocka gustuko badute ere, folk *tabernaria* eta countrya ere lantzen dituzte.

# DEBA GOIENENKO EUSKAL ESKOLA PUBLIK \* A

## HELDUEN HEZKUNTZA MATRIKULA 2012-13

EPA ARRASATE HHI

ARRASATE PASEALEKUA 1,3 ETA 5  
Tel 943 771172

[www.epaarrasate.hezkuntza.net](http://www.epaarrasate.hezkuntza.net)

Irailaren 3tik 14ra

I. GRADUA: ALFABETIZAZIOA / GAZTELERA / EUSKARA

II. GRADUA: GAITASUN OROKORRAK SENDOTU

III. GRADUA: BIGARREN HEZKUNTZAKO TITULUA (A eta D ereduak)

Irailaren 17tik 21era

INGELESA

FRANTSESA

INFORMATIKA

ARTEA

EUSKAL HERRIKO HISTORIA

UNIBERTSITATERAKO SARBIDEA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDEA

EPA BERGARA HHI

BARRENKALE 33  
Tel 943 764452

[www.epabergara.hezkuntza.net](http://www.epabergara.hezkuntza.net)

Irailaren 3tik 14ra

I. GRADUA: ALFABETIZAZIOA GAZTELERA

II. GRADUA: GAITASUN OROKORRAK SENDOTU

III. GRADUA: BIGARREN HEZKUNTZAKO TITULUA

Irailaren 17tik 21era

INGELESA

FRANTSESA

INFORMATIKA

UNIBERTSITATERAKO SARBIDEA

ZUAZOLA LARRAÑA BHI

OÑATI  
Tel 943 78 21 50

[www.zuazolalarranabhi.hezkuntza.net](http://www.zuazolalarranabhi.hezkuntza.net)

\* HEZIKETA ZIKLOAK, irailan ere matrikulatzeko aukera.

MEKANIZAZIOA  
MANTENDU-LAN ELEKTRO MEKANIKOA  
NATUR INGURUNEAN KIROL EKINTZEN GIDARITZA

Zure etorkizunerako aukera guztiak

matrikulazio epea zabalik

irailaren 3tik 21era

Guztion eskola guztion artean

goieskola

[www.goieskola.hezkuntza.net](http://www.goieskola.hezkuntza.net)



# Atxaga eta Saizarbitoria EKTren edizio berrian

- ▶ Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu-tituluaren 4. edizioa izango da
- ▶ Matrikula egiteko epea zabalik dago irailaren 30era bitartean

USOA AGIRRE | ARRASATE

Irailaren 30era arte zabalik dago Huhezik antolatutako Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu-tituluaren laugarren edizioa izena emateko epea.

Aurreko edizioetan bezalaxe, oraingoan ere euskal kulturgintzan "aurrera begiratzea" izango da asmoa. Horixe baita, antolatzaileen ustez, euskal kultura transmititzea: "Betidanik datorrigun izateko gogo horri eustea, sortzen eta birsortzen, ereiten jarraitzea".

## Atal berriak

Julen Arexolaleiba aditu-tituluaren koordinatzaileak azaldu digunez, bi atal berri zabaldu

dituzte aurten: Euskal Kulturgintzaren Ekosistemak eta Euskal Kulturgintzaren Berogailuak Gertuko Komunitatean. Ekosistemak inguruko atalean hiru eremu landuko dituzte kulturgintzaren arlo ezberdinak aintzat

hartuta: hedapena, transmisioa eta jakintza. Hiru eremu horiek orain arte landu dituzte bertso-laritzan, adibidez, baina aurten beste arlo batzuetan ere sakondu nahi izan dute (musika, antzerkia, komunikabideak...). Horretarako, kulturako arlo ezberdinetako hizlariak izango dira: Andoni Sagarna, Josean Muñoz, Laura Mintegi, Josu Zabala, Mikel Irizar, Ramon Agirre, Eñaut Elorrieta eta Uxue Alberdi.

Gertuko komunitateen inguruko atalean herritarrek herritarrendako egiten dituzten kultura ekimenen inguruan arituko dira. Arexolaleibaren esanetan, sakoneko ideia da "jendea har-



Bernardo Atxaga. | BASSO CANNARSA



Ramon Saizarbitoria. | GOIENA

tzaile ez ezik parte-hartzaile ere izatea euskal kulturaren bueltan". Euskal Herriko zazpi herrialdeetako ordezkariak etorriko dira herri-ekimeneko kultur ekintzen berri ematera: Oihane Perea, Joseba Altube, Patrick Queheille, Maite Davant, Amets Arzallus, Mattin Irigoien, Mainer Elkoro, Sagrario Aleman eta Amaia Almirall.

## Testigantzak

Aurten ere egongo da aukera euskal kulturgintzako zenbait pertsona ezagunen testigantzak bertatik bertara ezagutzeko aukera. Arexolaleibak Bernardo Atxaga eta Ramon Saizarbitoria idazleak nabarmendu ditu; Asisko Urmeneta marrazkilariak eta Anari Alberdi musikariak ere emango dute euren bizipenen berri.

40 bat ikaslerendako prestatura dago aurten edizioa eta aditu-titulu lortzeko euskal kulturaren inguruko proiektua egin beharko dute ikasleek, Huheziko bertako edo kanpoko tutore baten laguntzaz. Informazio gehiago: [www.mondragon.edu/ekt](http://www.mondragon.edu/ekt).

## ESANAK

"Hedapena, transmisioa eta jakintza aztertuko dira"

J. AREXOLALEIBA | KOORDINATZAILEA

## 'Florenzio Galdino' ikuskizuna Bergarako San Martin plazan

U.A. | ARRASATE

Gaur, egubakoitza, 18:30ean, Zirko Loretsua taldeak *Florenzio Galdino* izeneko zirku ikuskizuna eskainiko du Bergarako San Martin plazan, Jardun Euskara Elkarteak antolatuta.

Florenzio Galdino lorezaina da eta bere lorategi debekatura joango da lanera. Florenziok lorategiko sagar bat jan eta aldaketa bat izango du. Orduetik aurrera bere lana abentura bilakatuko da eta gauza guztiek norabide ezezagunak hartuko dituzte.

Florenzio Galdinok diziplina ezberdinak landuko ditu



Florenzio Galdino. | JARDUN

bere zirkuak: malabarismoa, magia eta clown-a, besteak beste. Ikusle guztiendako dago gomendatua; familian ikustera joateko moduko plana, beraz.

## 83 ekintzatik gora egin dituzte Bergarako gaztetxean

U.A. | ARRASATE

Uztaileko azken egunean egin zuen Bergarako Gazte Asanbladak ikasturteko azken bilera eta bertan amaitutzat eman zuten 2011-2012 ikasturterako antolatutako ekintzen egitaraua.

Guztira, 83 ekintza baino gehiago egin dituzte gaztetxean bukatu berri den ikasturte honetan: 29 kontzertu (62 musika talderekin) antolatu dituzte; 13 film edo dokumental proiektatu dituzte; 16 mahai-inguru egin dira; Angiolillo liburutegiak 6 liburu edo fantzine aurkeztu ditu; bost antzelean eta beste bost umorezko

bakarrizketa egon dira; eta lau herri bazkari egin dituzte. Ekintza horien guztien artean aipatzekoak dira, besteak beste, Egubakoitzak Kartzelan kontzertu zikloa, gaztetxeaz eztabaidatzeko egin zuten kongresua eta zinekluba berreskuratu izana.

## Abuztuan, lanean

Irailean ekingo diete berriz ere bilerak egin eta ikasturte berrirako ekintzak antolatzeari Gazte Asanbladako kideek. Abuztuan, baina, ez dira geldi egon eta sukualdea eta gaztetxe-ko gela ezberdinak berritzen aritu dira auzolanean.

## 'Gartxot', 'Gazta zati bat' eta 'Sua' euskarazko filmak emango dituzte

Bergarako Udalak eta Jardunek elkarlanean antolatu dute zinema zikloa

G.A./U.A. | BERGARA

*Gartxot*, *Gazta zati bat* eta *Sua* euskarazko filmak ikusteko aukera izango da datozen eguaztentean Bergarako Zabalotegi aretoan, 20:00etan. *Gartxot*, irailaren 12an; *Gazta zati bat*, 19an; eta *Sua*, urriaren 3an (astebeteko jauzia beharrezan bikoa egin dute azken kasu horretan, irailaren 26rako greba orokorra deituta dagoela eta). Sarrerak hiru euro balioko du, eta *Gazta zati bat* dokumentalaren kasuan, ostean, solasaldia egongo da Jon Maia zuzendaria-rekin.

Bergarako Udalak eta Jardun elkarteak elkarrekin antolatu dute euskal filmi eskainitako zikloa, euskarazko zinema eskaintzeko helburuarekin, besteak beste. Eta azpimarratu dute, euskal produktuen hartzaile nagusia euskalduna izanik, euskaldunon ardura dela produktu horien berri eman, zabaldu eta kontsumitzea. Ildo horretatik, euskal produktuak gure sentitu, ilusioz jaso eta ilusioz gozatzera animatu dituzte herritarrak.

## Hiru film ezberdin

Azaroan estreinatu zuten Asisko Urmeneta eta Juanjo Elordiren *Gartxot*, *konkista antzineko konkista* filma, XII. mendeko Nafarroako Itzaltzu herriko bardoa ardatz hartuta.

*Gazta zati bat* lana munduan bere gaztagatik ezaguna den Euskal Herriko herri txiki batean



Maitane Arizabaleta, Leire Iruin eta Edurne Korta, aurkezpenean. | GOIATZ ARANA

abiatzen da. Etorkizunari begira jartzen gaitu dokumentalak eta era berritzailean aurkezten du euskal gatazkaren gaia.

*Sua* filma, azkenik, Lapurdiko sorginei eta Inkisizioari buruz-

koa da; Pierre de Lancre inkisidoreak 600 pertsona baino gehiago torturatu eta hil zituela erakusten du. Eneko Arizaren Lagunak kultur elkarterako kideek egindako lana da.

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

**JUAN ZELAIA**  
XII. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lenak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindamen Industrialdea-Solbata. G. kalea-31013 IRUÑA.

Irailaren 30a arte

Tel: 948 32 65 35  
solbata@pamiela.com  
Araua: www.pamiela.com



2012

## Maider Arregi | Bertsolaria

**"Inor ez da jaiotzen bertsoan jakinda, bertsoan ikasi egin behar da"**

MAIALEN REGUEIRO | OÑATI

Maider Arregi (1996) oñatiarra da eta urtebete daroa Oñatiko Bertso Eskolan, bertsolaritza ezagutzeko asmoz. Aurten, auzoetako jaietan ibili da, gehienbat, bertsoan.

**Betidanik izango duzu gustuko bertsolaritza... Zergatik?**

Txikitan, aitak *Hitzetik hortzera* ikusten zuenean, aspertu egiten nintzen, ez bainuen ezer ulertzen. Pixkanaka, ulertzen hasi nintzen, eta asko erakarri ninduen. Izan ere, askotan hitz egitean esaten ez direnak batzuetan bertsoan irten egiten dira.

**Zer dira bertsoak zuretzat?**

Bertsoak nire zaletasuna dira, baina ez da denbora-pasa bakarrik. Bertso on bat botata ondo sentitzen naiz, eta entzutea ere gustatzen zait.

**Bertso batek zer transmiti dezake?**

Nire ustez, bertso batek guztia transmiti dezake. Horretarako, garrantzitsua da bertsoa jendearengana iristea. Bertso saioetan, bertso baten ostean denetariko aurpegiak ikus daitezke: batzuek negar egiten dute eta beste batzuk, aldiz, barre. Hor ikusten da bertso batek transmiti dezakeena.

**Bertsolaria jaio egiten da ala egin egiten da?**

Egia esan, ez dakit. Inor ez da bertsoan jakinda jaiotzen, nik uste dut bertsoan ikasi egin behar dela. Dena den, batzuek beste batzuek baino samurtasun handiagoa izaten dute bertsoan ikasteko. Samurtasunez ikasten dutenek esan daiteke jaiotzaz zerbait daukatela.

**Nola sortzen da bertso bat?**

Lehendabizi, esan behar duzuna pentsatu behar duzu, eta ondoren, ideia nagusia amaierarako gorde. Bukaeran esango duzuna pentsatuta daukazunean, azkenengo hitzekin errima egiten duten beste hitz batzuetan pentsatu eta erabiliko direnak aukeratu. Hori eginda, kantuan hasi zaitezke eta bertsoa osatzen joan.

**Nola erabaki zenuen Oñatiko Bertso Eskolan sartzea?**

Nik aspalditik Bertso Eskolan sartzeko gogoia neukan, baina lagunak ez ziren animatzen. Egun batean, Urko eskolara etorri zen bertsolaritzaren inguruko tailer bat egitera, eta hark animatu ninduen izena ematera. Horrela hasi nintzen bertsoan.

**Bertso Eskolan daramazun denboran, esperientzia nolako izan da?**

Oso gustura nabil, oso giro ona dago Bertso Eskolan eta hasieratik ondo hartu gaituzte. Gainera, abesten ere ikasi dut, eta pozik nago.

**Oñatiko hainbat auzotako jaietan ibili zara bertsoan.**

Kasablankan, San Pedron, Araotzen eta Berezaon egon naiz, besteak beste. Horrez gain, zaharren egoitzan ere egon nintzen, erretiratuen bazkarian.

**Zer-nolako bertsoak egiten dituzu?**

Egin ditudan saioetan gaiak libreak izan dira, Araotzen izan ezik, han gai batzuk eman zizkiguten; gaia libre denean, bururatzeko zaizuna botatzen duzu.

**Zer gai mota egiten zaizkizu errazena? Eta zailena?**

Egia esan, ez dakit. Nik uste dut egunaren arabera dela. Pozik nagoenean gai alaiak aukeratzen ditut eta triste nagoenean, gai tristeagoak. Dena den, esan dezaket gai tristeak errazagoak egiten zaizkidala, gauzak esatea errazagoa egiten zait.

**Nola ikusten duzu bertsolaritza Euskal Herrian?**

Uste dut geroz eta jende gehiago gustatzen zaiola. Guztien artean indarra hartzen ari da eta geroz eta bertsolari gehiago daude. Emakumeak ere geroz eta gehiago animatzen gara. Esango nuke bertsolaritza ez doala bide txarretik.

**Etorkizunean ikusten duzu zure burua bertsolari gisa?**

Nik bertsoan jarraitzeko asmoa daukat, baina, agian, egunen batean aspertu egin naiteke. Ez dut uste ona izatera iritsiko naizenik, oso zaila baita.

**Bertsolari bat aukeratzeko, zein? Zergatik?**

Amets Arzallus. Uste dut oso ona dela. Bertsoan entzun izan diot eta oso ona da.



## PERTSONALA

**Zure herriko txokorik maiteena:**

Aitaitaren txabola eta inguruak.

**Euskal Herriko txokorik maiteena:**

Aizkorri.

**Amets bat:** mundua berriz antolatzea.

**Gorrito duzuna:** Korrokoiak.

**Bisitatzeko leku bat:** India.

**Kantu bat:** gure koadrilako kantua.

**Telesail bat:** *Pulseras rojas*.

**Janari bat:** barraskiloak tomatearekin.

**Bertsolari bat:** Amets Arzallus.

**Maidar Arregi, Oñatiko Bertso Eskolako ikasgelan.**

# ANDRAMAIXAK 2012

ARETXABAETA  
JAJETAN!



Arlutz osteko kantxa aparrez betetako jolasleku bihurtu zen Andramari bezperan; umeez gozatu ederra hartu zuten.



Aretxabaeta Abesbatza, udalbatzako kideak eta herritarrak agurtzen.



Ama Birjinarekin eta San Rokerekin elizbira, herritarrak atzetik direla.

## Herritarrak oso gustura jaiek emandakoarekin

Txinako akrobaziek eta Senegalgo dantzek txalo zaparrada jaso zuten eta kontzertuek jendetza ekarri, baina beroa izan zen protagonista handiena | 28



Valentziatik etorritako Scura Splats taldeko oiloak herritarren begiradapean.



Udalbatzako zortzi kide eta Axel Armendia eta Irati Gartzia alkate txikiak ikurrinarekin, dantzariak agurtu ostean.



Errekalbarran 3, behea ARETXABAETA  
Tel.: 943 79 01 28 - 029 45 02 21  
[garbittu@suskainet.net](mailto:garbittu@suskainet.net)

- Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
- Obra bukarako garbiketaz
- Auzotaren komunitateen eta garajeen garbiketaz
- Kristalen garbiketaz
- Arropa garbiketaz

## Herritarrak oso gustura jaiek emandakoarekin

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA  
 Abuztuaren 13an hasi –Gazte Ekimenak Nafar Eguna ospatuta txosnagunean– eta 17a artean ospatutako Andramaixek zapore gozoa utzi zuten herritarrengan. Beroa izan zen protagonistetako bat, bero handia egun batzuetan, baina inor beldurtu barik herritarrek ez zuten hutsik egin ekitaldian: "Parte-hartze handia izan da eta oso giro polita bai egunez, bai gauetz. Bero egin arren herritarrak beste urte batzuetan legez ibili dira kalean eta oso pozik gaude", azaldu zuen Zigor Quintanillak, Kultura zinegotziak, jaiok bukatutakoan.

Aurrekontu murriztagoa izan dute aurtengo Andramaixek, baina ekitaldian ez da izan murrizketarik. Axel Armendia alkate txikiak eta Irati Gartzia alkateorde txikiak egin zieten ongietorria jaietara eta herritarrak bete-betean sartu ziren orduan.

Ikusmina sortu zuten ikuskizunak izan ziren Txinako akrobazia eta oreka jokoak eta >



Gazte ekimenak antolatutako boulder txapelketan lau lagunek jardun zuten.



Governors taldeko kideek kontzertu ikusgarria eskaini zuten.



Irati Gartzia eta Axel Armendia.



Egoitz Murgoitio nagusitu zen Leintz bailarako 74. itzulian.



MCD taldeko kideak kantuan.



Txinatikoi Choi ngqing Circus taldea herritarren aurrean.



Herriko taldeei babesa ematen; argazkian, Freedom Boys.



**ARETXABALETA**  
 Tel.: 943 77 06 12  
 gertujanariak@euskalnet.net





**Gemes**  
 estetika

Ilargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18  
 ARETXABALETA



*Zure irudi-aholkulariak*

**Kilima**  
ume eta haundienentako arropak

Ilargi plaza 6 Aretxabaleta  
Tel.: 943 53 34 98








**HERRIKO PLAZAKO DENDARI  
ETA TABERNARIEN PARTETIK...**

**ESKERRIK  
ASKO!**



senegaldarren doinuak eta erritmo biziko dantzak; txalo zaparrada jaso zuten biek. Ohiko ekitaldiak ere jendetsuak izan ziren: ikurrinari agurra udalbatzako zortzi kide bertan zirela; elizbira Andramariren eta San Rokeren irudiekin; sokamuturra -txinatarren denda berriko leihoa apurto zuen bigantxak-; eta herri bazkaria. 600 lagunendako gertatu zuten paella eta ez zen inor goseak geratu. Gazte Ekimenak antolatutako jolasetan, ostera, ura izan zen protagonista, beroari aurre egiteko ezinbestekoa.

**Bi kontzertu gauero**

Gauetan ere giro polita sortu zuten kontzertuek, bi bakoitzean. Elorrioko Iheskidek gazteak ekarri zituen plazara, eta Governorsek eta Zea Maysek bete egin zuten plaza adin guztietako herritarrekin. Herriko taldeek euren lanen berri emateko aukera izan zuten txosnagunean, eta ondoren, MCD bilbotar mitikoak doinu gogorrekin gozarazi zituen. Jai bukaera ere txosnagunean izan zen, iaz legez Zopilotes Txirriaos nafarrek ekarritako tex mex doinuekin dantzan eginda.



Koadrilak eta ohiko errekortadoreak izan ziren protagonista sokamuturrean.



Zirika Zirkus antzerki taldeko kideak Uxue Bazterrika boluntarioarekin lanean.



Tumbata batukada kaleak girotzen.



Herritarrak paellarekin bazkaltzera.



Senegaldik etorritako Jamu taldeak erritmo biziko dantzak erakutsi zituen.



Koadrilak izan ziren protagonista, beste behin, jaietako azken egunean. | ARGAZKIAK: MIRARI ALTUBE



**Begira**  
argazkilaritza

ILARGI PLAZA 1, ARETXABALETA

fotobegira@yahoo.es

www.fotobegira.com

tel: 943 53 49 45 - 637 26 26 86

**WEBGUNE BERRIA !!**



**IOSU**  
harategia • taberna



Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08

**Gazteentzako moda**

**Belar Meta**

Salsa, YUMI, mela/ta, Bench, zergatik, edc, VOLCOM, Koto, BIDEAR



**GUREA**



**TABERNA**

Durana 32 Aretxabaleta

Tel.: 943 79 20 64

# ANDRAMAIXAK 2012

LEINTZ  
GATZAGA  
JAIETAN!

## JAIETAKO EGITARUA

OSTIRALA

7

**18:00** Jaien hasiera. Etxafuego eta Bonba japoniarrak. Ondoren... ZEZEN MEKANIKOA.


**19:00** NOBENA Dorletako Santutegian. Eskoriatzako abesbatzak lagundurik. Ondoren... Gazta, ardo eta ogia.

**22:00** ROCK kontzertua plazan:

- ▶ Drop!
- ▶ Lukas Prest
- ▶ Interprete Desconocido
- ▶ Strikers

AGURRA

EUGENIO  
OTSOA  
Leintz  
Gatzagako  
alkatea



Gora  
Andramaixak!

**F**esta eder askoak  
prestatu dizkigute  
Gatzagan

Andramari esan al dizute

Aurten parrandarikan

egin al dezute

Gatzagan haundienak egin

itzazute.

▶ Gazte Iraultza

**01:00** ZEZEN mekanikoa.

ZAPATUA

8

**11:00** OTXANDIXOKOEI ongietorria.

**12:00** MEZA Dorletako Santutegian, Eskoriatzako abesbatzak lagunduta.

**13:00** TRIKI-BERTSO poteoa. Leire, Eider eta Maider trikitilari eta Aramaixoko Bersto eskolak lagunduta.

**14:30** HERRI Bazkaria. Tiketak salgai irailaren 6ra arte, Labidean.

**16:30** MUS eta Briska txapelketa.

**17:00** Ohe ELASTIKOAK plazan.

**17:30** Mahai-FUTBOL txapelketa.

**20:00** BOLO Txapelketa.

**22:30** KONTZERTUA Akatz Reggae band.



JULIO CALLEJA

**BOLO TXAPELKETA** | ZAPATUA | BOLATOKIAN | 20:00. Herriko beterano eta ez horren beteranoak batuko ditu, aurten ere, bolo txapelketak.

DOMEKA

9

**09:30** Mendiko BIZIKLETA zeharkaldia.

**13:00** Tolin el MARIACHI. Kanta Mexikar eta rantxerak.

**17:00** Dorletako Ama PILOTA txapelketako finalak.

▶ Bengoa-Murga (Amurrio) vs

Prieto-Eskoriatza (Arrasate)

▶ Oreja-Zuazua (Arrasate) vs Zubizarreta anaiak (Eskoriatza).

**19:00** Burrunda Kelele BATUKA taldea.

ZAPATUA

15

**14:00** JUBILATUEN bazkaria.



JULIO CALLEJA

**HERRI BAZKARIA** | ZAPATUA | HERRIKO PLAZAN | 14:30 Hori da aurtengo berritasunetako bat, iaz herri afaria egin zuten moduan, aurtengoa herri bazkaria izango da. Antolatzaileek aurreikusten dute 170 lagun inguru batzea mahaiaren bueltan.



JULIO CALLEJA

**KONTZERTUA** | EGUBAKOITZA | HERRIKO PLAZAN | 22:00. Ohiturari jarraituz, egubakoitz gaua gazteendako izango da, bailarako taldeekin osatutako rock gaua antolatu dute gatzagarrek.



sormen ooo  
industrial design

Andramaixak jai  
gorisutwak !!



## Pilota finalak etzi, 17:00etan: Amurrio-Arrasate gazte mailan eta Arrasate-Eskoriatza seniorretan

J.B. | LEINTZ-GATZAGA

Dorletako Ama pilota txapelketako partiduek ez dute hutsik egingo aurten ere. Joan den aste bukaerako finalen ostean, etzi gazte eta senior mailako lehiak jokatu dira, 17:00etan. Gazte mailan Amurrio eta Arrasate lehiatuko dira eta seniorretan, berriz, Eskoriatza eta Arrasate. Finalera heltzeko lau partidu irabazi dituzte, martxoaren 5ean hasi zen-eta txapelketa.

**Entrenamendu ezaren eragina**  
Gazte mailako lehiak, Mauri Zubillaga txapelketaren antolatzailearen arabera, Arrasate-

ko Gorka Prieto eta Oier Arregik igarri egingo dute bi hilabetez geldirik egon izana: "Amurriokoek txapelketa ezberdinak jokatu dituzte abuztuan eta ligan oso parekatuta ibili arren [22-21 amaitu zuten], orain arrasatearrak baino hobeto egongo dira". Horri final batek dakarren presioa eta urduritasuna gehitu behar zaio: "Nerbioek hainbat akatsa eragingo dituzte", dio Zubillagak.

Seniorretan, ordea, Eskoriatzako Zubizarreta anaiek Arrasateko Aritz Zua Zua eta Jon Orejaren aurka neurtuko dituzte indarrak.



Urtero bete egiten da pilotalekua jaietako herri afarian. Aurten bazkaria egingo dute, bihar. | JULIO CALLEJA

## Afaria beharrean bazkaria, otxandiarrekin bat egiteko

Lehenengoz egingo dute herri bazkaria, bihar; aurten ere 170 lagun inguru espero dituzte

**JOKIN BEREZIARTUA** | LEINTZ-GATZAGA  
Aurtengo Andramaixetako nobedade nagusietako bat da herri afaria beharrean herri bazkaria egingo dutela. Bihar da hitzordua, 14:30ean. Aldaketaren arrazoia zein den azaldu digu Iñaki Agi-

rreureta Kultura zinegotziak: "Ama birjinaren eguna zapatuan da aurten. Hala, urtero otxandiarrei egiten diegun ongietorriari jarraipena eman eta gurekin gera daitezen bazkaria egitea pentsatu dugu". Atzo izan zen txartela

erosteko azken eguna eta antolatzaileek urteroko lagun kopurua espero dute, hau da, 170 bat herritar: "Arrakastatsua izaten da urtero, ia herri osoak hartzen du parte", dio Agirreurretak. Bertako produktuek osatuko dute menua; besteak beste, entsalada eta saiheskiak jango dituzte 12 euroren truke -haurrek bost.

### Bazkalostea kantuan

Otxandiarrek abesteko duten ohitura kontuan hartuta, aurten ere denetariko herri kantuekin giro-tuko dute bazkalostea.



Domeka arratsaldean bi final jokatu dira. | JULIO CALLEJA



"Leintz Gatzagako  
Udalak Andramaixa  
zorientsuak  
opa dizkizue  
gatzagar guztioi"





Lukas Prest talde eskoriatzarra. | GOIENA

## Gaur bailarako lau taldek kontzertua eskainiko dute Debako Strikers-ekin batera

Punk, rock, metal eta hardcore doinuak entzungai egongo dira gaur gauean

**MAIALEN REGUEIRO** | LEINTZ GATZAGA  
Gaur hasiko dira Leintz Gatzagako Andramaixa jaiak, eta, beti bezala, musika hitzorduak ere ez dira falta izango egun hauetan.

Gaur, guztira, bost taldek eskainiko dute kontzertua gauean. Arrasateko Gazte Iraultza, Drop! eta Interprete Desconocido taldeek, Eskoriatzako Lukas Prest! taldeak eta Debako Strikers-ek eskainiko dute kontzertua, 22:00ak inguruan hasita.

### Baiarako taldeak

Aurten badirudi bailarako taldeei beste urteotan baino garrantzi

handiagoa eman nahi izan die-tela antolatzaileek. Izan ere, beste urte batzuetan, bailarakoa ez zen talde garrantzitsu bat gonbidatzen zuten, eta, hala, bi kontzertu soilik eskaintzen zituzten.

Aurten, aldiz, bost talde gonbidatu dituzte. Izan ere, antolatzaileek bailaran indarra hartzen ari diren taldeak badaudela ikusi, eta haiei aukera ematea pentsatu dute.

Hala, Arrasateko bi taldek eta Eskoriatzako beste bik emango dute kontzertua. Beraz, punk, rock, metal eta hardcore doinuak

entzun ahal izango dira gaur gauean talde horien eskutik.

### Debako Strikers

Debagoieneko musika taldea ez izan arren, kontzertua eskainiko du gaur. Talde hori Debatik dator eta punk eta rock doinuak eskainiko ditu taula gainean. *Gure izaera* du izena haien azken diskoak, eta bertako kantuak eskainiko dituzte, besteak beste.

Horrez gain, bihar, zapatua, reggae doinuak entzun ahal izango dira Akatz talde bilbotarraren eskutik. Haiek 22:30ean hasiko dute kontzertua.

## Ohe elastikoak, besteak beste, herriko haurrentzat

Gaur eta bihar hainbat ekintza egongo dira herriko haurrentzat eta gaztetxoentzat

**M.R.** | LEINTZ GATZAGA

Gaurko eta biharko, hainbat ekintza antolatu dituzte herriko haurrentzat, haiek ere jaietako protagonista izaten baitira. Aurten Leintz Gatzagako umeez zezen mekanikoaz, ohe elastikoaz eta mahai-futbol txapelketaz gozatu ahal izango dute jaietan.

### Zezen mekanikoa

Gauerako hitzordua izan arren, herriko haurrek ere parte hartu ahal izango dute zezen mekanikoan.

Kontzertuak dauden bitartean hasiko da, 01:00etan, hain zuzen ere, eta herritar guztiak daude gonbidatuta parte hartzera.

### Ohe elastikoak

Bihar, zapatua, ordea, plazara gerturatzen denak ohe elasti-

koak ikusi ahal izango ditu, eta, nola ez, bertan ibili. Hori, baina, arratsaldeko bostetatik aurrera izango da.

Hala, Leintz Gatzagako haurrek salto egiteko aukera ezin hobea izango dute, hainbat ohe izango baitituzte. Bertan, lagunekin zein bakarrik, tarte dibertigarria igaro ahal izango da.

### Mahai futbol txapelketa

Ekintza hori ere biharko antolatu dute, eta 17:30ean hasiko da. Biharko hitzordu horretan, herriko haurrek eta haurrak ez direnek parte hartu ahal izango dute, eta, beste era batera, futboleko jokatu.

Bikoteka jokatu dute eta parte hartzen duten guztiatik bikote txapelkun bat egongo da. Bikote horrek saria izango du.



Aurreko urteko ohe elastikoak. | GOIENA



Aramaio Berts Eskolakoak Gatzagan izango dira. | GOIENA

## Bihar triki-bertso poteoa herriko kaleetan zehar

Leire, Eider eta Mainer trikitilariak Aramaio Berts Eskolako laguntza izango dute

**M.R.** | LEINTZ-GATZAGA

Biharko herri bazkariaren aurretik giroa jartzeko asmotan, triki-bertso poteoa egingo da herriko

kaleetan zehar. Leire, Eider eta Mainer trikitilariak trikiti doinuak joko dituzte eta hirukote horrek Aramaio Berts Esko-

lako kideen laguntza izango du. Izan ere, azken hauek bertsoak eskainiko dituzte.

### Herrikoa

Triki-bertso poteoa, beraz, 13:00etan hasiko da, eta herri bazkari arte irauko du. Hala, herriko kaleak zeharkatuko dituzte eguna girotzeko.

Herritar guztiak har dezakete parte triki-bertso poteo horretan: herri bazkari doazenak, eta ez doazenak ere bai.



10 logela zabal  
eta erosoak

•  
Menu  
bereziak

•  
30 pertsonendako  
aretoa



ondo ibili jaixetan!







**Alberto eta Ali**

Alberto Caro santurtziarra eta Ali Agirre bergarra uztailearen 28an ezkondu ziren, Garain. "Egun zoragarria pasatu genuen. Eskerrik asko, bikote, eta orain arte bezain zoriontsu jarraitu!". Familiaren eta lagunen partetik.



**Julio eta Ariane**

Julio del Mazo Lopez eta Ariane Menor Mendia irailaren 7an ezkondu ziren. "Heldu da eguna! Oso zoriontsu izatea espero dugu, bikote! Musu handi bat, bi koadrilen eta familiakoen partetik!".



**Aitor eta Ana**

Oñatiko Aitor Zubia eta Bergarako Ana Lizarralde irailaren 7an ezkondu ziren, Sorian. Zorionak, bikote! Patxo erraldoi bat, Bergarako lagunaren partetik.

URTEURRENA



**Sabas Igartua Orbea**

M. Arantxa F. de Arroiberen alarguna  
Bergaran hil zen 2011ko irailaren 11n.



Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 9an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

*Beti gure bihotzetan.*

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA



**Xabin Telleria Arkauz**

2011ko abuztuaren 24an hil zen, 79 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza zapatuan, irailaren 8an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

**Jesus Mari Olaziregi Usabiaga**

2012ko abuztuaren 31n hil zen, 65 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Aramaion, 2012ko irailaren 7an.

URTEURRENA

**Santi Zubia Ojanguren**

Oñatin hil zen 2011ko irailaren 13an, 72 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza zapatuan, irailaren 8an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

**Enrike Muguruza Azkarate**

'Beosin'

2011ko abuztuaren 28an hil zen, 86 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 9an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde aurretik eskerrik asko etxeko izenean.

ESKER ONA



**Joxe Mari Aramendi Ugarte**

'Korta'

2012ko abuztuaren 27an hil zen, 58 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan, irailaren 8an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Oñatin, 2012ko irailaren 7an.

OROIGARRIA

**Emilio Garro Lopez de Gamiz**

(Alberto Garro lankidearen aita) Aretxabaletan hil zen, 85 urte zituela.

**M. Pilar Barandiaran Larrañaga**

(Karmele Iturbe lankidearen ama) Arrasaten hil zen, 83 urte zituela.



**Sixto Arrieta Suso**

(Begoña Arrieta lankidearen aita) Gasteizen hil zen, 96 urte zituela.

**Tomas Iribecampos Okina**

(Hirune Iribecampos lankidearen aita) Arrasate hil zen, 89 urte zituela.

*Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.*



Arizmendi ikastola.  
Leintz bailaran, 2012ko irailaren 7an.

ESKER ONA



**Tomas Iribecampos Okina**

Arrasaten hil zen 2012ko uztailearen 29an.



Jaso ditugun animo eta besarkada guztiengatik, eskerrik asko.

Etxaburu eta Intxaustiko sendiak.  
Arrasaten, 2012ko irailaren 7an.

OROIGARRIA

**Rafael Echeverria Villar**

Zuazola Larraña institutuko gurasoa

2012ko abuztuaren 16an hil zen, 48 urte zituela.



Oñatiko eskola publikoko irakasle, ikasle eta langileok bat egiten dugu familiaren saminarekin.



Oñatin, 2012ko irailaren 7an.

OROIGARRIA

**Alfonso Balenciaga Errasti**

Aretxabaleta Lanbide Eskolako ikaslea

Arrasaten hil zen 2012ko abuztuaren 17an.



Bat egiten dugu familiaren saminarekin.



Aretxabaleta Lanbide Eskolako irakasle eta ikaskideak.  
Aretxabaletan, 2012ko irailaren 7an.

OROIGARRIA

**Rafa Etxeberria Villar**

2012ko abuztuaren 16an hil zen, 48 urte zituela.



*Ez zaitugu inoiz ahaztuko ez zaitugu inoiz galduko gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko*

Zure koadrila.  
Oñatin, 2012ko irailaren 7an.







# goiena

2012-09-07

BUKATZEKO

## Oñatiar bat alkate... non eta Alkizan!

- ▶ Hamabi urte daramatza Alkizan bizi izaten eta joan den urtea ezker hango alkate da Jon Umerez
- ▶ Hamazortzi urte zituela utzi zuen Oñati, baina oraindik ere askotan etortzen da familia bisitatzerara

ARRITXU BARRUSO | OÑATI

Nolatan oñatiar bat Alkizako alkate? Horixe bera galdetu diogu Jon Umerez oñatiarrari. Izan ere, 2011ko maiatza ezker, Tolosaldean, Ernio mendiaren babesean, dagoen 384 biztanleko herriko alkate da Umerez.

Dena dela, ez pentsa Oñati eta Alkiza bitarteko bidaia zuzen-zuzena izan zenik. Oñatitik irten eta Alkizan lur hartu arte makina bat buelta emandakoa da. "18 urterekin utzi nuen Oñati, Madriler Filosofia ikasketak egitera joateko. Unibertsitateko ikasketak amaitu ostean Donostiara itzuli nintzen, baina Ameriketako Estatu Batuetara joan nintzen gero doktoretza ondorengoa egitera. 1997an Donostiara itzuli nintzen berriro ere, baina hiriburutik apur bat aldendu eta naturara gerturatzeko nahiarekin emaztea eta biok 2000. urtean iritsi ginen Alkizara".

**Lehen; zinegotzi; orain, alkate**  
Oraingoa ez da Umerezek udal jardunean egingo duen lehenengo agintaldia. 2003 eta 2007 bitartean zinegotzi izan zen. Alkizan talde independente bat dago: Alkizako Abertzale Ezkertiarrak. Bada, joan den urtean alkate



Jon Umerez oñatiarra Alkizako udaletxearen aurrealdean. | J.U.

izateko proposamena egin zioten eta baiezkoa eman zuen oñatiarrak. "Dena dela, talde-lan moduan ulertzen dut Udaleko lana".

Alkizako hauteskondeekin lotuta bada bitxikeria bat: Alderdi Popularra da talde independentearekin batera azken lau hauteskondeetara aurkeztu den bakarra. Dena dela, 2011ko maiatzean, esaterako, ez zuen boto bakarra ere lortu PPK.

### Oñati ere oso gustuko

Umerezek urte asko daramatza Oñatitik kanpora bizi izaten, baina jaioterriarekin harremana mantendu izan du beti: "Gurasoak eta anaiak bertan bizi dira, eta askotan joaten naiz Oñatira". Are gehiago, aitortu digu ez litzaiokeela askorik inportako bizi izatera Oñatira joatea, "baina Donostian lan eginda oso zaila izango litzateke hori".

Asteburu honetan, baina, ez du Oñatira etortzerik izango Alkizan jaiak hasi zituzten-eta atzo. Beraz, bigarren urtez alkatetzatik bizi izango ditu herriko jaiak. Oraingo honetan ez, baina urriko lehen zapatuan, akaso, baserriar jantzita ikusiko dugu Oñati aldean, Herri Eguna gustuko duen hitzordua da-eta.

### AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



### Udagoien betea

Oñatiko bihurtu zuen sindikalgintzak udazken beroa iragartzea, lan-hitzarmenen negoziazioaren ildotik. Eta ez da azitia izan behar antzemateko aurtengo udazkenak areagotu egingo dituela orain arteko hondamendia eta herritar gehienon larritasunak, krisi zitala eta bere kudeaketa eskasa direla medio..

Baina nik gurean zantzu baikorragoak ere ikusten ditut. Unibertsoan omen diren zulo beltzen antzekoa izan da hemen armen aroa eta haien antzera energia mordoa zurrupatu digu gure zulo beltzak urte luzez. Hasten ari garen aro berrian energia hori erabilgarri izango dugu. Halaber, lubakitik lubakira egin den politika zelai irekian egitera pasa gintezke, eta horrek esparru komunak sortzeko eta indartzeko aukera lekarke.

Euskararen eta euskal hedabideen dinamikan murgilduta nabilerarik, begibistan ditut zantzu baikorrak: irekitasuna, lankidetzaren giroa, eraldaketarako gogo... Ez, ez naiz inozoa. Badakit oro ez dela urte, eta garai zaharrak ez direla oraindik gauditu. Baina ibaiaren beste aldean bistartzen hasi gara eta gure abileziaren baitan egongo da zubiak eraikitzea. Enbata ahaztu gabe, lanez eta aukerez betea dator udagoiena.

Orain Arrasaten

Benetan pisua galdu nahi duzu?

Rosa Sarabia doktoreak

kontsulta berria ireki du:

Pronokal<sup>®</sup> metodoa

Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gora gabekia

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

CMU

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE  
Tel: 943 78 44 22.

Rosa Sarabia doktorea  
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna  
OBESITATEAREN ETA GEHEGIZKO PISUAREN UNITATEA  
BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA  
BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK  
BULANRAK - SUCURIA - SABELALDEA  
Medikuntza estetikoa eta kirurgia plastikoa

Esan baitez betiko